

EBALUATZAILE BATEN BEGIRADATIK DEMOKRAZIA DELIBERATIBOAREN KORTSEAK HAUSTEN

PARTAIDETZA ETA KOMUNITATE GARAPENA MASTERRA

EHU 2022-2023 IKASTURTEA

EGILEA: IMANOL UGARTE LANDA

TUTOREA: IGOR AHEDO GURRUTXAGA

2023ko iraila.

INDIZEA

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena eta justifikazioa	4
2. Helburuak eta hipotesiak	5
3. Planteamendu metodologikoa	6
4. Herritarren batzarra ikuspegi teorikotik	8
4.1 Demokraziaren krisia. neke demokratikoa	8
4.2 Berrikuntza demokratikoa. zehaztu beharreko kontzeptua	9
4.3 Berrikuntza demokratikoak. orain artekoari kritika.	11
4.3.1 <i>Zuzeneko parte hartzea</i>	11
4.3.2 <i>Demokrazia parte hartzailea</i>	12
4.3.3 <i>Gobernantza kolaboratzailea</i>	13
4.3.4 <i>Demokrazia agonistikoa</i>	15
4.4 Demokrazia deliberatiboa. herritarren boterea berreskuratzeko tresna?	16
4.4.1 <i>Minipublikoak, zer dira?</i>	16
4.4.2 <i>Minipublikoak, motak</i>	17
4.4.3 <i>Feminismoaren kritika</i>	19
4.5 Demokrazia deliberatiboa. ebaluazioaren garrantzia	20
4.5.1 <i>Nola neurtu deliberazioa</i>	21
4.5.2 <i>Ebaluaziorako irizpideak. OCDE</i>	22
4.6 Berrikuntza demokratikoak. esperientziak.	25
4.6.1 <i>Hiru gertakari</i>	25
4.6.2 <i>Hibridazioa</i>	28
5. Gipuzkoako herritarren batzarra. analisi enpirikoa	29
5.1. Gipuzkoako herritarren batzarra. ebaluazioaren begiradatik.	29
5.1.1 <i>Irisgarritasuna</i>	30
5.1.2 <i>Inklusioa</i>	32
5.1.3 <i>Gardentasuna eta deliberazioa</i>	36
5.1.4 <i>Inpaktua</i>	39
6. Herritarren batzarra osatzeko giltzarrien bila. ondorioak eta proposamenak	42
6.1. Hibridazioa, demokrazia deliberatibotik gainerako kritikak barneratzeraino.	43
6.1.1 <i>Hibridazioa Gipuzkoako Herritarren Batzarrean, proposamena.</i>	46
6.2. Ebaluazioa, ikuspegi ezberdinetatik	48
6.2.1 <i>Ebaluaziorako bost printzipioak</i>	48

6.2.2.	<i>Herritar deliberatiboa ebaluazio lanetan. Britainia Handiko esperientzia</i>	50
6.2.3.	<i>Gipuzkoako Herritarren Batzarra, behaketa bertatik bertara egiteko abagunea</i>	52
6.2.4.	<i>Metaebaluazioa, ebaluatzeko beste proposamen bat.</i>	53
7.	Bibliografia, web orriak eta jardunaldiak	55
8.	Eranskinak	57
8.1.	Elkarrizketatuen taula	57
8.2.	Gipuzkoako Herritarren Batzarraren ebaluazio txostena	aparteko dokumentua
8.3.	Herritarrei egindako galdetegiaren emaitzak	aparteko dokumentua

TAULEN AURKIBIDEA

1.	Taula. Gipuzkoako Herritarren Batzarrean behaketarako erabilitako taula	6
2.	Taula. Ikerketarako metodologiaren sekuentzia	8
3.	Taula. Berrikuntza demokratikoen familiak	10
4.	Taula. Boterearen irismena eta inpaktua	14
5.	Taula. Minipublikoaren ezaugarriak	19
6.	Taula. Ebaluazioaren zikloa hiru etapetan	23
7.	Taula. Ebaluazioaren zikloa hiru etapetan. Irizpideak	25
8.	Taula. Analisi empirikoa. Irisgarritasuna	32
9.	Taula. Analisi empirikoa. Inklusioa	35
10.	Taula. Analisi empirikoa. Gardentasuna eta deliberazioa	38
11.	Taula. Analisi empirikoa. Inpaktua	41

1. AURKEZPENA ETA JUSTIFIKAZIOA

Demokrazia deliberatiboaren olatua bizi dugula diote zientzia sozialetako ikertzaileek; ohiko demokrazia elektoral minimoa krisian dagoen honetan, bai herritarrak, baita agintariak ere, bide berriak bilatu nahian dabilta gaur eguneko politikagintzarekiko dagoen indiferentzia edo urruntasuna apaltzeko asmotan.

Lan honek Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarrita duen Etorkizuna Eraikiz dinamikaren barruan egindako Herritarren Batzarra du oinarri gisa. Klima aldaketaren aurrean Gipuzkoako lehen sektorearen biziraupena bermatzeko gomendio batzuk idatzi zituzten herrialdeko 32 herritarrek prozesu deliberatibo honen bidez. Lan honen egileak prozesu horretan behatzaile bezala parte hartzeko aukera izan zuen EHUko Parte Hartuz ikerketa sailaren lantalde barruan.

2022ko azaroan hasi eta 2023ko urtarrilean amaitu zen Gipuzkoako Herritarren Batzarrak ausaz hautatutako 32 herritar izan zituen parte hartzaile gisa. 4 asteburutan zehar burutu zen, eta asteburu bakoitzean 11 orduko lana egin zuten herritarrek, guztira ia 50 orduko lan sakona, alegia. Parte Hartuz-eko behatzaileok herritarren lantaldean bertan egoteko aukera izan genuen prozesu osoan zehar, eta partaideek zein erraztaileek egin zuten lana behatzeko eta ebaluatzeko aukera ezin hobe izan zen guretzat.

Esan bezala, behatutako prozesu mamitsu eta berritzaile hau oinarri duen lana izango da ondorengo orrietan irakurri ahalko dena. Berrikuntza demokratikoak eta demokrazia deliberatiboa izango dira zutabe, izandako esperientziarekin lotura egin, eta gisa honetako prozesuetan egin beharreko ebaluazioei eta diseinuei buruz hitz egingo da ondorengo lerroetan.

Berrikuntza demokratikoari kritika egiten dioten familiek izan behar duten elkar eraginaz edo hibridazioaz, eta aztertu diren prozesuek izan behar duten ebaluazioaz, edo, hobe esanda, metaebaluazioaz proposamen bat egiten saiatuko da ikerketa lan hau. Horretarako, egindako ikerketa azaldu eta ondorioak aurkeztuko dira, beti ere, aurretik, erabiliko diren kontzeptuak marko teoriko batean barnebilduz.

Aipamen berezia egin nahi die egileak Gipuzkoako Herritarren Batzarrean parte hartu duten herritarrei eta erraztaile taldeari. Prozesu osoan zehar eurak egindako lana behatzen eta ebaluatzen ibili garenean, euren harrera ezin hobe izan da, gurekiko jarrera asertiboa erakutsiz eta beharrezko galderei eta zalantzei erantzunez; horrez gain, egin dugun ebaluazio txostenerako eta aurrean daukagun lan hau osatzeko beharrezkoak izan diren sakoneko elkarrizketak egiteko erakutsi duten prestutasunagatik ere eskerrak eman nahi dizkie.

2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Aurreko lerroek adierazten duten bezala, gero eta gehiago agertzen ari den metodologia bat da Herritarren Batzarrarena. Dagoeneko gertatzen ari den klima aldaketaren gaiari buruzko gomendioak eta antzekoak sortzeko erabiltzen den tresna da; baina ez soilik horretarako, osasungintzako edota azpiegituren gaiarekin lotura duten gaietan sakontzeko ere erabiltzen da, besteak beste.

Gaia modan dagoela esan dezakegun arren, oraindik ere oso material eta ikerketa gutxi daukagu metodologia honen inguruan. Elstub eta Escobarren eskuliburuak (Elstub eta Escobar, 2019), ordea, ematen dizkigu pista asko gaiari buruz; horrelako prozesuetan inplikaturik dabilen ikertzaileen ekarpenekin osatutako liburu mardula publikatu baitzuten 2019an.

Gauzak horrela, Gipuzkoako Herritarren Batzarra oinarri hartu, bertan parte hartu dugun agenteen betaurreko ezberdinetatik begiratu (herritarrak, aditu-antolatzaileak eta behatzaileak) eta dagoen bibliografiarekin metaebaluazio baterako (metaebaluazioa deituko litzaioke ebaluazioaren diseinuari eta ebaluazioaren ebaluazioa egiteko moduari), zein prozesu hauen hibridaziorako proposamen bat eraikitzea da Master Amaierako Lan honen helburua. Helburu horretara iristeko azpi helburu hauek ere baditu lan honek:

- Parte hartu duten herritarren, aditu-antolatzaileen eta behatzaileen ikuspegiak konparatzea
- Berrikuntza demokratiko ezberdinen azterketa bat egitea, eta zehazki demokrazia deliberatiboan sakontzea.
- OCDE-k markatzen duen ebaluazio deliberatiboa baino ikuspegi orokorragoa txertatzea.
- Ikuspegi orokor horretan berrikuntza demokratikoen familiekin hibridazio bat txertatzea eta hurrengo prozesu baterako diseinu proposamen bat egitea.
- Esperientzi erreal batetik abiatuta, hurrengo prozesuen ebaluazioan kontuan izan beharreko proposamen bat eraikitzea. Metaebaluazio parte hartzaile baterako ideia batzuk eraikitzea.

Behin helburuak eta landuko den gaia plazaratuta, beharrezkoa da ikergaiari buruz egileak aurrez dituen baieztapenak azaltzea. Baieztapen edo hipotesi hauek landutako marko teorikoaren ondorioz, eta izandako esperientziaren ondorioz ateratakoak izan dira. Beraz, orain plazaratuko diren hipotesi hauek izango dira lan honetako bide orria markatuko dutenak. Honakoak dira egileak ikerketarako zehaztu dituen baieztapenak edo hipotesiak:

- Herritarrek prozesuaren amaieran metodologia lotesleagoa izatea eskatuko dute.
- Herritar guztiak ez dira gai izango edo ez dute motibaziorik izango prozesuaren dinamika eta erritmoa jarraitzeko.
- Prozesuak oso inpaktu txikia izango du gizartean.
- Ebaluazioa hanka motz geldituko da etapa deliberatiboan soilik egongo delako.
- Prozesuan parte hartuko duten kideek ez dute jakingo ebaluatzaileon lana zein izan den.

- Berrikuntza demokratikoen arteko hibridazioak prozesuen ikuspegi eta inpaktu orokorrago bat gauzatuko dute (lan honetan ez da egongo hau frogatzerik, beste prozesu batean egin beharko litzateke).
- Behaketa integralago eta parte hartzaileago bat egiten bada, ebaluazio txostenean parte hartzaile ezberdinen ikuspegia txertatu ahal izango da ebaluazio osoago bat lortuz (lan honetan ez da egongo hau frogatzerik, beste prozesu batean egin beharko litzateke).

3. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Atal honen sarreran aurkeztu den bezala, lan honen oinarria Gipuzkoako Herritarren Batzarrean egindako ia 50 orduko zuzeneko behaketa izan da. Esan bezala, 32 herritarrek parte hartu zuten prozesu honetako lantaldeetan behatzaile zuzenak izan ginen Parte Hartuz-eko ebaluatzaile taldea. 4 asteburutan 4 pertsonako lantalde bat izan ginen prozesua egin den lekuan behatzen; Partaidetza eta Komunitate Garapena izena hartzen duen masterreko praktikak egiten ibili ginen 3 ikasle eta 4 irakasle (asteburu bakoitzean irakasle ezberdin bat).

Patxi Juaristik dion bezala (Juaristi, 2003), prozesuan parte hartu zuten herritar zein erraztaileen portaerak inolako manipulaziorik eta interferentziarik gabe behatu genituen, eta ikerketarako baliagarria zen informazioa atera genuen bertatik. Prozesu osoan zehar lau lantaldetan banatuta egon ziren herritarrak, eta ebaluatzaileok euren mahaian esertzeko beta izan genuen; momentu oro jakin zuten bai herritarrek, zein erraztaileek gu behaketa lan bat egiten ari ginela.

Egin genuen behaketa aukera paregabea izan zen ikerketa taldearentzat, horrelako prozesu bat eta erabili zen metodologia bertatik bertara bizitzeak ikuspegi gehigarri bat eman zigun, ohiko behaketa moduetan eskuratzen ez dena. Herritarren artean sortutako lau lantaldeetan bertan egoteak, eta prozesuan ia parte hartzaile bat gehiago izateak ekarri zigun kapital sozialak, herritarren bizipenak eta pentsamenduak, harreman zuzenak eta abar behatu ahal izatea.

Datu bilketa egiteko txantiloia orokor bat osatu genuen lantalde guztiaren artean, eta emaitza analisi enpirikoaren zatian aurkeztuko da taulan agertzen diren lau ardatzen arabera. Txantiloia honakoa izan zen:

1 taula. Gipuzkoako Herritarren Batzarrean behaketarako erabilitako taula.

	Metodologia	Edukiak	Dinamizazioa	Emaitzak	Taldea eta pertsonak
Irisgarritasuna					
Inklusioa					
Gardentasuna, deliberazioa					
Inpaktua					

Iturria: Parte Hartuzeko lan taldea

Deliberazio fase honen hasieran eta bukaeran OCDE-k planteatzen duen galdetegia (OCDE, 2021) pasa zitzaien herritarrei; ohiko galderez gain, deliberazio markoa gainditzen duten beste galdera batzuk ere txertatu ziren ariketa honetan.

Behaketan jasotako datuekin eta galdetegietako erantzunekin, Parte Hartuzeko lantaldeak ebaluazio txosten bat osatu dugu eta antolatzaileei aurkeztu diegu. Bertan, ardatz bakoitzaren indarguneak eta hurrengo prozesu baterako hobetzekoak identifikatzen dira. Ebaluazio txosten honetan agertzen den edukia erabili da lan honen analisi enpirikoan, eta txostena eta galdetegiaren emaitzak eranskin gisa daude jasota.

Egindako ebaluazio lan honez gain, Gipuzkoako Herritarren Batzarrean parte hartu zuten eragileak elkarrizketatu ditugu ikerketa taldean parte hartu dugunok. Elkarrizketa hauek sakonekoak izan dira, ebaluatzaile batek parte hartu duen beste norbanako bati egindako elkarrizketak. Metodologia honen bitartez, behaketa zuzen bidez ateratako ondorioak parte hartzaileen bizipenekin gurutzatu nahi izan ditugu.

15 elkarrizketa sakon egin dira guztira egindako behaketatik eta galdetegietatik jasotako datuak kontrastatzeko eta ebidentziak jasotzeko. Prozesuan protagonista izan diren 9 herritarrek hartu dute parte elkarrizketa sakon hauetan, 12 herritarri egin genien eskaintza eta guztiek baiezkoa eman ziguten, baina, agenda kontuak direla eta, 9 kideekin lortu dugu egitea; horrek erakusten du behatzaileok harreman estuak egin ditugula herritarrekin. Horiez gain, hain garrantzitsuak izan diren erraztaile taldetik bat, prozesu osoan aholkulari izan den Arantxa Mendiharat aditua, prozesuaren motor izan diren ArantzazuLab eta Telesforo Monzon herrigintza laborategiko kide bana, Tolosako Herri Batzarrean erraztaile lanean ibili direnak eta, azkenik, prozesuaren jabe izan den Gipuzkoako Aldundiko partaidetza saileko teknikari bat elkarrizketatu ditugu.

Aurrez prestatutako gidoi bati lotutako sakoneko elkarrizketa irekiak egin zaizkie norbanako hauei, ikertzaileontzat garrantzitsuak izan diren gaiei buruz galdetuz, eta beraientzat aipatzekoak izan diren ikuspuntu, iritzi, edo gertaerak kontatzeko aukera eskainiz. Herritarrak ebaluatzaileok hautatuak izan dira, parte hartu dutenen aniztasuna ordezkatzeko helburuarekin hautatuak; elkarrizketa borondatezkoa izan da herritarrentzat.

Aipatutako metodologia horiez gain, edukien azterketa sakona ere egin da lan hau garatzeko orduan. Marko teorikoa osatzeko artikulak akademikoak, OCDE-ren ebaluazio gida, gaiarekiko erreferenteak diren web orriak eta online bidezko ponentziak ikertu dira. Markatutako hipotesiei eta helburuei erantzuteko, aldiz, aurrez aipatutakoaz gain, orain arteko esperientzien inguruko bibliografia, eta eginda dauden konparaketak erabili dira, baita gai honi buruzko bi jardunaldietan entzule gisa zuzenean parte hartzea ere.

Lanaren antolaketa edo hezurdurari dagokionez, lehen zatian, gaiaren aurkezpena, hipotesiak eta metodologia aurkezten dira. Ondoren, ikerketa osoan zehar agertzen diren kontzeptuak teorikoki azaltzen dira. Gaur egungo demokraziaren aurrean dagoen ikuspuntua azaldu, horren aurrean posizionatzen diren 5 kritika demokratikoren azalpena, eta bertan kokatzen den demokrazia deliberatiboaren garapena. Demokrazia deliberatiboan definizioa, feminismoak egiten dion kritika, minipublikoak eta motak, prozesu hauei egin beharreko ebaluazioa, esperientzia ezberdinak eta 5 kritika demokratikoen arteko hibridazioaren esanahia.

Lanaren bigarren zati garrantzitsuean, behaketan jasotako galdetegiaren datu garrantzitsuenak azalduko dira, baita behaketan erabilitako lau ardatzen txantiloien datuak ere. Horrez gain, hibridazioari buruz eta ebaluazioari buruz ikertutako gaien azalpena egingo da, eta bukatzeko, ondorio gisa, planteatutako hipotesien aurreko erantzunak eta prozesu baten diseinurako hibridazio proposamen bat eta metaebaluazio baterako beste bat egiten saiatuko da egilea.

4. HERRITARREN BATZARRA IKUSPEGI TEORIKOTIK

4.1. DEMOKRAZIAREN KRISIA. NEKE DEMOKRATIKOA

Azken urteetan demokrazia ordezkatzaileren aurrean dagoen konfiantza eza gero eta nabariagoa da herritarrengan (Ganuzak eta Mendiharatek, 2020) Ikusi besterik ez dago komunikabideetan edota sare sozialetan agertzen diren iritziak politikarienganako ikuspegi negatiboz beteak daudela. Gezurretan ibiltzea, euren mozkinak irabazteko estrategiak, ustelkeria, diskurtsoen zaharkitzea eta abar dira gehien agertzen diren kritikak biztanleriaren aldetik. Azken hamarkadan hauteskundeetan abstentzioak izan duen gorakadak ere nabarmen adierazten du gaur egungo alderdien aurrean dagoen haserrea eta politikagintzarekiko dagoen indiferentzia.

Bide berean, ArantzazuLab Gizarte berrikuntza laborategiak 2023ko apirilean egindako galdetegi baten (ArantzazuLab, 2023) emaitzak ditugu; bertan, besteak beste, honako ondorio batzuk azaltzen dira: herritarren bi herenek uste dute politikariei ez zaiela axola herritarrek pentsatzen dutena; bi herenek uste du ez daukala modurik politikan eragiteko; gehiengoak uste du balioak eta ideiak ardatz hartu beharko lirakeela politikariak hautatzerako orduan...

Gauzak horrela, Arantza Mendiharatek eta Ernesto Ganuzak (Ganuzak eta Mendiharatek, 2020) neke demokratiko gisa definitzen dute aipatu berri dugun egoera hau. Horren adierazle da, Barne ministerioak ematen duen datua: 2011 eta 2012 urteetan 492 alderdi politiko sortu ziren, ia denak orain arteko alderdi politiko nagusien egiteko moduen kontrakoak, gezurrik esango ez zutela zioten alderdiak, ustelkeria gainditu nahi zuten alderdiak, herritarren parte hartze zuzenagoa eskatzen zutenak eta abar.

Hutsalakeria honen aurrean efizientziarik eza leporatzen zaie politikariei, ez bakarrik herritarren aldetik, baita enpresarien, funtzionarioen, bankarien edota beste politikari batzuen aldetik ere. Horregatik, eta

efizientiaren izenean, badago joera bat zeinetan politikagintza tekniko profesional edo enpresarien esku utzi beharko litzatekeela dionik ere.

Donald Trump eta Silvio Berlusconi enpresa-gizon garrantzitsuak izan ziren euren estatuetako presidentetza eskuratu aurretik, eta Silvio Berlusconi bera agintetik kendu zuen Mario Monti teknikari profesionala zen, ekonomialaria eta Europar Komisarioa, hain zuzen ere. Efizientiaren bila egindako saiakera hauek ere ez dute asebetetzen, ordea, herritarra; orokorrean, herritarraren parte hartzea bultzatu nahi duen iritzia dago errotuta, boterea eta ustelkeria kontrolatuko dituen, eta erabakiak hartzearen parte sentituko dena.

Honen aurrean sortzen da berrikuntza demokratikoaren kontzeptua.

4.2. BERRIKUNTZA DEMOKRATIKOA. ZEHAZTU BEHARREKO KONTZEPTUA

Berrikuntza demokratikoa gaur egun oso modan jarrita dagoen kontzeptua da (Elstub eta Escobar, 2019), baina ez du balio egiten den guztia kontzeptu honen aterkipean jartzeak. Gaur egun definizio gutxi dago eta tipologia asko ez da landu, horrek ekarri du kontzeptuaren gehiegizko luzatzea eta edozertarako erabiltzea. Hauteskundeetan oinarritutako gutxieneko demokrazia hau krisian dagoen garaiotan, berrikuntzari eta gauzak beste era batera egiteari begira jarrita daude politika asko, baina, askotan, azalean gelditzen dira politika hauek.

Elstub eta Oliver Escobarren arabera (Elstub eta Escobar, 2019), berrikuntza demokratikoaren definizioa hauxe behar luke: *Berrikuntza demokratikoak gai politiko, funtzio politiko edo gobernantza-maila baterako berriak diren prozesuak edo erakundeak dira, eta herritarrek gobernantza-prozesuetan duten zeregina birpentsatzeko eta sakontzeko garatzen dira, parte hartzeko, eztabaidatzeko eta eragiteko aukerak handituz.*

Hori horrela, berrikuntza demokratiko bezala izendatzeko ezaugarri batzuk bete behar dituzte aipatutako prozesuek edota erakundeek. Etengabean garatu eta sakondu behar da herritarrek izango duten rola, eta, ezinbestean, gertaeretan eta testuinguruan oinarritutako ezaugarriak (OCDE,2021) zehaztu. Gertaerei lotuta honako ezaugarriei erreparatu behar zaie: partaideak aukeratzeko metodoa, parte hartzeko modua, erabakiak hartzeko modua, boterera heltzeko pausoak eta autoritatea. Testuinguruari lotuta, aldiz, honako ezaugarriei erreparatuko zaie: eremua, gobernantza maila eta prozesu politikoaren xedea.

Beraz, berrikuntza diogunean, testuinguruari erreparatu behar diogu, ezinbestean; kontzeptu honi buruz ari garenean, ez du esan nahi leku guztietan une berdinean berrikuntza bat direnik. Posible da leku batean prozesu bat jarri mahai gainean eta zeharo berritzailea izatea; aldiz, beste lurralde edo gai bati begiratzen badiogu, ohartu gaitezke urte askotxo direla gisa horretako metodologia bat martxan jarri zela.

Berrikuntza demokratikoak ideia edo diseinu finkoak baino gehiago, martxan dabilzan ideia batzuk dira, eta ekintza horiek berriak izango dira testuinguruz aldatzen badira.

Tipologiak asko ez diren arren, krisi demokratikoari aurre egiten dien lau kritika edo tipologia aurkeztu ditzakegu; antzekotasunak dituztela leporatu izan zaie askotan, baina sakonki aztertuz gero, bakoitzak baditu elementu interesgarriak gaur egungo egoera honi aurre egiteko: demokrazia parte hartzailea, zuzeneko demokrazia, gobernantza kolaboratzailea eta demokrazia deliberatiboa. Ondorengo taulan agertzen ez bada ere, lau kritika hauei bosgarren bat gehituko zaio lan honetan: demokrazia agonistikoa.

3.taula. berrikuntza demokratikoen familiak

Berrikuntza demokratikoen familiak	Gertaerei lotutako ezaugarriak				Testuinguruari lotutako ezaugarriak		
	Partaideak hautatzeko modua	Parte hartzeko modua	Erabakiak hartzeko modua	Boterera heltzeko pausoak eta autoritatea	Eremua	Gobernantza maila	Prozesu politikoaren xedea
Deliberatiboa	Zozketa estratifikatua	Arrazoiketa, bozketa eta entzutea	Deliberazioa eta agregazioa	Aldakorra: benefizio pertsonalak, aholkatzea eta kontsulta, komunikatiboki eragitea, ko-gobernantza eta zuzeneko autoritatea	Anitza (osasuna, ingurumena, politika sozialak eta errforma konstituzionalak)	Tokikoa, lurraldekakoa, nazionala edo nazioartekoa	Batzuk (agenda ezartzea, formulatzea eta aztertzea)
Parte hartzailea	Norberaren hautaketa eta proposamen bidezkoa	Bozketa, arrazoiketa eta entzutea	Agregazioa	Ko-gobernantza eta zuzeneko autoritatea	Gastu publikoa	Tokikoa	Agenda formulatzea eta erabakiak hartzea
Zuzenekoa	Norberaren hautaketa	Bozketa	Agregazioa	Aholkatzea eta kontsulta, zuzeneko autoritatea	Anitza (osasuna, ingurumena, politika sozialak eta errforma konstituzionalak)	Tokikoa, erregionala eta nazionala	Erabakiak hartzea
Gobernantza kolaboratzailea	Norberaren hautaketa eta proposamen bidezkoa	Arrazoiketa eta entzutea	Deliberazioa eta negoziazioa	Aldakorra: benefizio pertsonalak, aholkatzea eta kontsulta, komunikatiboki eragitea, ko-gobernantza eta zuzeneko autoritatea	Anitza (osasuna, ingurumena, politika sozialak eta errforma konstituzionalak)	Tokikoa, erregionala eta nazionala	Askotarikoa

Iturria: OCDE (2021). *Evaluation Guidelines for Representative Deliberative processes*, OCDE publishing, Paris.

4.3. BERRIKUNTZA DEMOKRATIKOAK. ORAIN ARTEKOARI KRITIKA.

4.3.1. Zuzeneko parte hartzea

Demokrazia ordezkatzailerari kritika da honakoa, herritarrek lau edo bost urtean behin bozka eman eta aukeratutako ordezkariak botere ia guztia eskuratzeari egindako kritika. Hautatua izan den ordezkariak ez du zertan herritarren nahia eraman erabaki guneetara; politikari hautatuak badaki lau edo bost urte izango dituela berriz ere hauteskundeetara aurkeztu aurretik, eta herritarren erabakitzeko ahalmenaren ordezkariak erabiliko du berak nahi dituen politikak egiteko, nahiz eta, askotan gertatzen den bezala, bozka eman dion herritarren iritzia bera ez izan. Horregatik, herritarrek politika zehatzetan erabakitzeko gaitasun zuzena eskatu izan ohi dute, nahiz eta hauteskundeetan euren ordezkariak aukeratu.

Ziurrenik gehien ezagutzen den kritika da; gurean praktika asko egon ez den arren, herri mugimenduen ohiko eskaera bat izan da. Europaren iparraldean sarri erabiltzen dituzte horrelako metodoak, herritarrek erabakietan zuzenean parte hartu dezaten. Ingurumenari buruzko gaiak, azpiegituri buruzkoak, osasungintzari buruzkoak eta abar izaten dira ohikoenak.

Gure gizartean berrikuntza bezala ezagutzen den arren, Atenaseko demokraziak zuzeneko parte hartzearen antza gehiago zuen, gaur egun ezagutzen dugun demokrazia ordezkatzailerarena baino.

Aurreko atalean aipatu den bezala, berrikuntza honek ere herritarren rola aurrean birpentsatu eta sakontzen du, beraz, berrikuntza demokratiko bezala definitu genezake. Metodo asko zerrendatu baditzaiegu ere, ezagunenak erreferendumak eta legegintzako herri-ekimenak dira.

Erreferendumei eta herri-ekimenei dagokienez, familia honen ezaugarri nagusiak dira parte-hartzaileak hautatzeko metodoa, nor bere burua hautatzea; parte hartzeko modua, bozketa; eta erabakiak hartzeko modua, agregazioa (Jäske, M. eta Setälä, M., 2019. Elstub eta Escobar 2019an publikatua). Eragin-maila aldakorra da, baina gehienak plebiszitu aholku-emaielen eta lotesleen artean daude. Ez dago muga teorikorik hori gertatzen den gobernu-mailari dagokionez, baina politikak egiteko azken fasean eta garrantzi nazionaleko gaitan erabiltzen da normalean.

Prozesu hauei egiten zaizkien kritiken artean hiru azpimarratu behar ditugu: bozka ematen duten herritarren kompetentzia arazoak eta deliberaziorik eza, gobernuak hasitako ekimenek izaten duten kutsu manipulatzailea, eta herri-ekimenean diruak eta interes antolatua izaten duten eragin handia.

4.3.2. Demokrazia parte hartzailea

Terminologiari erreparatuz gero, badirudi aurreko kritika berdina dela, eta askotan gurutzatzen diren arren, kritika honek justizia faltari eta berdintasun ezari egiten dio erreferentzia. Ezkerreko mugimenduetatik egin ohi den kritika da hau, askotan politikariak hartutako erabakiak ez dira justuak izaten, eta eragina ez da berdintasun printzipioetan oinarritutakoa izaten.

Herritarrek parte hartuz gero, eta aniztasuna bermatuz gero, zaugarriak diren herritarren aldeko erabakiak hartuko dira, eta eragin edo inpaktu orekatua izango dute; erabakiak ez baitira goitik behera

hartuko, baizik eta behetik gora. Mota guztietako herritarrak egongo direnez, erabakietan horien guztien iritzia egongo da barneratuta.

Metodologiarik ezagunena Aurrekontu Parte-hartzailea da, eta hau ere berrikuntza demokratiko bezala definitu genezake, ezkerreko mugimenduek erabili duten protestaz gain, proposamenen fasera ere pasatzen baita herritarra, hau da, honako prozesuetan ere herritarren rola aldatu egingo da orain arteko jokatzeko moduen aldean.

1990eko hamarkadaren hasieran, Aurrekontu Parte hartzailea ezkerrearen esperimentalismotik sortu zen Brasilgo Porto Alegren, bereziki arrakastatsua izan zen tresna hau, justizia soziala, gobernu ona eta ezkerreantzeko zorte elektoralak bateratu zituen. Brasileko eremu gehiagotara hedatu zen, neurri handi batean, baita Latinoamerika osoan ere, 1990eko hamarkadan, estrategia politiko baten ardatz gisa. Une horretan, administrazioek osorik aplikatu zuten, askotan zatiak egokituz eta berrituz, baina baita erreforma administratiboak ezarriz ere. Estrategia politiko baten zati nagusi bat zen, eta funtziona zezakeen ezkerrearen irudi gisa zabaldu zen, klientelismoarekin hausten zuelako, edo ezkertiarrek erakunde kapitalisten aurka egin zezaketelako. 1990eko hamarkadaren amaieran, ordea, gauzak aldatu egin ziren, Aurrekontu Parte hartzaileek nazioarteko arreta erakarri zuten, eta parte hartzeko jardunbide egokia bihurtu zen, nazioarteko hainbat sarek onartu zutena. Orain, politikoki neutrala den gailu gisa ezagutzen da, berrikuntza demokratiko gisa.

Aipatutako metodoa herritarrek gastu publikoa esleitzeko erabakian parte hartzeko prozesu bat da (Ganuza eta Baiocchi, 2019). Prozesua dagokion barrutiko edozein pertsonari irekita egon ohi da, eta nor bere burua hautatzea izan ohi da modu nagusia, nahiz eta nahita egindako hautaketa ere kasu askotan presente egon. Parte hartzeko modu komun bat bozketa da, eta entzuteak eta diskurtso-adierazpenak ere zeregin garrantzitsua dute, baina, azken batean, agregazioaren bidez hartzen dira erabakiak, eta, beraz, gertagarria den osagai horrek bereizten du beste familietatik. Hemen ere esparru politikoaren ezaugarria garrantzitsua da, Aurrekontu Parte hartzaileen prozesuak gastu publikoko erabakietarako erabiltzen baitira. Eragin-mailari dagokionez, aurrekontu parte-hartzaileak erabakiak hartzeko arduradun gisa jartzen ditu herritarrak, zuzeneko autoritatearekin batera edo kolektibo bateko kide bezala, kogoheru-akordio baten parte gisa. Testuinguruaren ezaugarriei dagokienez, partaidetzazko aurrekontuak toki-mailan funtzionatu ohi du, eta hiri politikei eta ekimenei buruzko formulazioari eta erabakiak hartzeari lotuta egon ohi da.

Prozesu honi ere egiten zaizkio hiru kritika nabarmentzekoak direnak: batetik, oso zaila izango da herritar guztiek hemen parte hartzea, eta baldintza hoberenak dituzten pertsonak bakarrik hartuko dute parte, beraz, komunitate ezberdinei axola dien erabakietatik urrun gelditu daiteke prozesua. Bestetik, askotan gertatu ohi da parte hartzen duten herritarrek ekintza tekniko soil bat bezala ulertzea, eta euren iritziak horretara bakarrik mugatzea, eta, berez, gisako honetako prozesuek maila politikoan egin nahi diote kritika gaur egungo demokrazia ordezkatzailari, herritarrek aurrekontuetan erabaki zuzena eduki

ahal izatea, hain zuzen ere. Azkenik, prozesuaren emaitza ez da herritarren esku gelditzen, baizik eta exekuziorako gaitasuna duten teknikari eta politikarien esku, eta horrek erabakiaren gaineko erabilera okerra ekar lezake emaitza desitxuraturaz, askotan gertatzen den bezala.

4.3.3. *Gobernantza kolaboratzailea*

Hirugarren kritika honek erreferentzia egiten dio erabaki publikoen aurrean erakundeek duten eskusibotasunari. Teknikariek eta politikariek biltzen dute erabakiak hartzeko eta berauek exekutatzeko ahalmen guztia, eta herritarrak eta eragile antolatuak oso urruti gelditzen dira hemendik.

Beraz, zer egin autoritateek eta herritarrek euren aldetik arazo bati konponbide bat eman ezin diotenean? Nola konponduko du autoritateak arazo bat herritarrak kontutan izan gabe? Edo nola egingo dute hau herritarrek jakin badakitenean erakundeek dituztela beharrezko baliabideak arazo konplexuei konponbideak aurkitzeko?


Galdera horien aurrean, herritarren, autoritate publikoen eta interes taldeen arteko kooperazioa eta ko-produkzioa bilatu nahi dituzten espazioak dira proposatzen direnak. Era askotarikoak izan daitezke, eta horregatik familia hau izan daiteke kritika guztietan anitzena; foro publikoetatik hasi eta kolaborazioan oinarritutako elkarteetaraino iritsi baikaitezke.

Gauzatzeko modu askotarikoak izateak zaila jartzen du demokrazia kolaboratzailea definizio batera ekartzea, baina erabili genezake ondorengoak: *gobernu-akordio bat, zeinetan erakunde publiko batek edo gehiagok estatukoak ez diren eragile interesdunak zuzenean inplikatzeko dituen erabaki kolektiboak hartzeko prozesu formal batean, adostasunera bideratua eta deliberaziozkoa dena, politika publikoak egikaritzea edo programa edo ondasun publikoak kudeatzea helburu duena* (Bussu, S., 2019).

Definizio hori honako sei irizpideetan oinarritzen da: 1) erakundeek hasitako foroa izango da; 2) partaideen artean administrazioarena ez den eragile bat egongo da; 3) partaideak erabaki prozesuan inplikatuak izango dira, eta ez kontsultatuak soilik; 4) foroa formalki antolatua izango da eta kolektiboki bilduko da; 5) helburua erabakiak kontsentsu bidez hartzea izango da (nahiz eta praktikan ez den beti lortzen); 6) kolaborazioa politika publikoan edo kudeaketa publikoan zentratuko da.

Kasu honetan ezinbesteko ezaugarriak dira partaideak nahita hautatzea edo nor bere burua hautatzea, parte hartzeko modu gisa bakoitzak bere diskurtsoa erabiltzea, eta erabakiak hartzeko kontsentsua erabiltzea negoziazio edo deliberazio bidez. Inpaktua oso era ezberdinetakoa izan daiteke, baina, hala nahi den kasuetan, inpaktu handia izatera iritsi daiteke (ikus 3. taula). Eredu eta etapa politikoei dagokienez maila ezberdinetan aurki daitezke: maila lokalean, probintzietan, estataletan edota estatuz gaindiko eremuetan.

4. taula. Boterearen irismena eta inpaktua



Iturria: Elstub, S. eta Escobar, O., (2019) Manual de Innovación democrática y Gobernanza.

Familia honek ere baditu bere hutsuneak: alde handia dago herritarrek erakundeekiko duten ikuspegiaren eta erakundeetako pertsonen herritarrengan duten ikuspegiaren artean. Herritar askok antsietate handia erakusten dute horrelako kooperazio prozesuetan inplikatzeko, aldiz, erakundeei bide luzea falta zaie egiteko modu hauetara (erritmoa, ezagutza...) egokitze; bestalde, erakundeek espektatiba handiak jarri izan dituzte herritarrengan, baina askotan “gaitasun” gutxi dutela ohartu izan dira.

Orokorrean, nahiz eta teknologiek eta egiteko modu berriekin asko saiatu, teoriaren eta praktikaren artean alde nabaria egon ohi da, eta horrek frustraziora eraman izan ditu bide honetan hasi diren herritarrak eta erakundeak.

4.3.4. Demokrazia agonistikoa

Gainerako kritiken aldean, sistema demokratikoarekiko ikuspegi berri bat proposatzen da, pluralismo agonistikoa deritzona; honek dio ezinezkoa dela antagonismo politikoa guztiz deuseztatzea, eta gatazken erabateko konponbidera iristea ere bai (Mouffe C., 2000)

Lan honetan aurrerago sakonduko den demokrazia deliberatiboak kontsentsu arrazional bat babesten du, hau da, diskurtso landuak mahai gainean jarri eta guztien ideiak barnebilduko dituen erabakiak adostasun bidez hartzea. Chantal Mouffe ikertzaileak guztiz baztertzen du ideia hori, eta politika egiteko moduetan gatazka eta boterea erdigunean jartzea proposatzen du.

Demokrazia liberala gauza ezina da eta porrotera kondenatua dago, beti ibiliko baita batasun politikoa bezalako jomuga demokratikoen atzetik; honez gain, eskubide guztiak dituen elementu bezala jarriko da pertsona erdigunean, beraien aniztasuna aldarrikatuz, eta honek berak, aldi berean, batasun politikoaren printzipioen aurka egiten du.

Komunitate politiko baten identitatea sortzen da ideiak elkarbanatzen ditugunean, eta horrek garamatza “gu” eta “euren” arteko gatazka batera. Batasun politikoaren ideiak muga hori deuseztatzea garamatza, baina errealitate hori ikus nahi ez izanak demokraziarentzat arrisku bat suposatzen du, beti egingo baitugu topo kolektiboen arteko gatazkekin.

Chantal Mouffek dio gatazka edo oposizio hau beste era batera kudeatu behar dela. Gatazka edo muga hori onartzen jakin behar duen identitate kolektibo bat sortu behar da, iritzi kontrajarriak onartu eta barnebilduko dituen, ez batasun politiko bat irudikatuz, baina bai gatazka bera kolektibo baten barruko elementu bat bezala onartuz, eta kolektibo barruan dauden botereak eta hegemoniak gatazka horren baitan sortuz.

Era honetan pertsona bakoitzaren eskubideek, askatasunak eta berdintasunak ko-existitzen ikasiko dute komunitate batean. Kolektiboaren batasuna ere etorriko da printzipio horiek elkarrekin egoten ikasten badute eta gatazka barnean eta erdigunean jartzen badira.

- *Irrupzio* bidezko partaidetza

Gatazka barnebiltzen ikasi duen estrategia da *irrupzio* bidezko partaidetza. Gobernantza kolaboratzailean erabiltzen da. Gatazka bera baliatuko du interes taldeak (askotan herri mugimendua) erakundeak euren lekutik mugitzeko; hau da, herritarrek euren diskurtsoa eta protesta egiteko moduak, komunikazioa eta abar erabiliko dituzte gainerako herritarrengan legitimitatea lortzeko. Legitimitate hori erabiliko da erakundea bera dagoen leku erosotik mugiarazteko (Blas A. eta Ibarra P., 2006)

Normalean, partaidetza kolaboratzailea sustatzen denean, erakundeak izaten dira hau martxan jartzen dutenak. Erakunde publikoak erabakitzen du partaidetza prozesua zer terminotan eraiki: norke parte hartuko duen, zein diren mahai gainean jarriko diren gaiak, marra gorriak non dauden, erabakia noren esku dagoen, non eta noiz bilduko diren eta abar. Horregatik, kolaboraziora pauso bat egiten duten interes talde edo herritarren aldetik balorazio eskasak egin izan ohi dira.

Irrupzio bidezko partaidetza erabiltzen bada, interes taldeek edo herritarrek botere gehiago izango dute gonbidatua izan direnean baino. Herritarren artean legitimitatea lortua izango du horra iristeko, eta botere exekutiboak aitortuko dio legitimitate hori, gainerakoan, herritarrak kontrara jarriko baitzaizkio. Demokraziak bultzatutako gobernantza gisa definitzen du modu hau Susana Bussu ikertzaileak (Bussu S., 2019).

Irrupzio bidezko praktikak kontuan hartuz gero, garbi ikus daiteke herritarrek euren rola eta espazioak etengabe negoziatzen dituztela, *irrupzio* bidezko parte hartzearen eta partaidetza tradizionalagoaren artean mugituz. Bi bide hauek ez dute zertan euren artean baztertzailerak izan, bien artean mugitzen jakitea eta onartzea da balio duena, gehienetan (Bussu S., 2019).

Kolaborazio prozesu hauek dira interesgarrienak herritarrak eta erakundeak gobernantza kolaboratzaile bat martxan jartzeko; honek bermatzen baititu elkarren arteko botere oreka, justizia eta berdintasuna.

4.4 DEMOKRAZIA DELIBERATIBOA. HERRITARREN BOTEREA BERRESKURATZEKO TRESNA?

Lan honetan sakonduko den bosgarren kritika honek berdintasunari, herri-kontrolari edo gardentasunari, diskurtso arrazionalari, kontsentsuari eta publizitateari egiten dio erreferentzia (Harris C., 2019). Habermasek ezaugarritu zuen Demokrazia deliberatiboari (Habermas, J. 1986) kritika sakonak egin izan dizkio feminismoak bere ibilbidean zehar, atal honetan azalduko den bezala.

Gaur egun demokrazia deliberatiboan ezagutzen dugun praktika erakargarriak esanguratsuena minipublikoena da.

4.4.1. Minipublikoak. Zer dira?

Minipubliko terminoa Robert Dahl politologoak erabilitako “minipopulu” deliberatiboaren hitzetik eratorria da. Honako proposamena egin zuen 1989an aipatu zientzialariak (Robert Dahl, 1989): demokopia osoaren artean ausaz hautaturiko mila bat herritar; beren zeregina da, urtebetez gutxi gorabehera, gai bati buruz deliberatzea eta gero bere erabakiak iragartzea; agendako gai garrantzitsu bakoitzeko “minipopulu” bat egongo litzateke; edozein gobernu mailatakoa: nazionala, estatukoa, edo tokikoa; akademikoen eta espezialisten aholku batzorde batek eta administrazio langile baten gidatu beharko lukete; Audientziak egiteko balio lezake, ikerketak agintzeko, eztabaidak bideratzeko eta abar.

Definizio asko izan ditzakete minipubliko hauek eta asko kontrajarriak eta konplexuak gainera: Goodin eta Dryzek (Goodin eta Dryzek, 2006) diote herritarren taldeak direla, benetan deliberatiboa izateko adina txikiak, eta nahikoa ordezkatzailerak demokratikoa izateko.

4.4.2. Minipublikoak. Motak.

(Elstub eta Escobar, 2019) Ausaz hautatutako herritarrez osatuta daude, adibidez, hautes-eroldaren zozketa bidez hautatuak. Printzipioetako bat da eztabaidarako gaiak eragindako guztiek hautatuak izateko aukera berdinak dituztela, eta horrek prozesuaren legitimitatea sostengatzen du. Parte-hartzaileak, oro har, laginketa aleatorio estratifikatu baten bidez hautatzen dira, horrela, herritarren ezaugarri demografiko gehienak behar bezala ordezkaturik egon daitezkeen, hala nola, adina, generoa, etnia, desgaitasuna, diru-sarrerak, geografia, hezkuntza, erlijioa eta abar.

Helburua da gizarte zientzietako metodoak erabiltzea eta herritarren *microcosmos* bat osatzea, non herritar bakoitzak hautatua izateko aukera berdinak izango dituen.

Minipubliko txikienek ez dute estatistikoki herritarren ordezkatzailerik izan nahi, baina gizartearen aniztasun demografikoa ordezkatzeko jarraitzen dute.

Parte-hartzaileek ordainsari bat jasotzen dute, eztabaidak erraztaileen bitartez dinamizatzen dira eta adituek informazioa eta euren iritzia defentsa eramatean dituzte herritarren aurrera; honen ostean, herritarrek aukera izango dute aditu hauei galderak egiteko edo informazio gehiago eskatzeko.

Oro har, gai espezifikoak dira (ingurumena, azpiegiturak, osasungintza...), eta gaiari buruz eztabaidatu bezain laster desegiten dira. Nahiz eta ezaugarri komun horiek izan, minipublikoak mota ezberdinetakoak izan daitezke: herritarren epaimahaiak, kontsentsuzko konferentziak, planifikazio zelulak, inkesta deliberatiboak eta herritarren batzarrak. Hurrengo lerroetan azalduko dira bakoitzaren ezaugarriak (Elstub eta Escobar, 2019):

- Herritarren epaimahaiak:

Estatu Batuetan sortu ziren 1971 urtean, baina orduz geroztik Britainia Handian, Herbehereetan, Irlandan, Frantzia eta Australian ere egin dira. 12-25 herritarrek hartzen dute parte eta 2-5 eguneko iraupena izan ohi du. Hautatuek gai bati buruz eztabaidatu eta gomendio kolektibo edo epai bat sortu behar dute.

- Kontsentsuzko konferentziak:

Danimarkan sortu ziren 1980. hamarkadaren amaieran, helburua zen parlamentariak aholkatzea zientziari eta teknologiari buruz. Danimarkan sortu eta praktika gehienak bertan egin badira ere, herrialde ezberdinetan egin dira: Australia, Zeelanda Berria, Korea, Israel, Japonia ... 10-25 herritar hautatzen dira ausazko laginketa estratifikatu bidez. Bi etapa izaten dituzte orokorrean; lehenengoan, herritarrek biltzen dira asteburu batzuetan eta gaia, prozesua eta taldea ezagutzen dituzte, ondoren, aholkularitza jasotzeko aditu eta interes taldeak aukeratzen dituzte hurrengo etaparako. Bigarren etapan, adituen eta interes taldeen azalpenak jasotzen dituzte. Eraitza bezala txosten kolektibo bat osatzen da hartutako erabakia azalduz.

- Planifikazio zelulak:

Alemanian sortu ziren 1970. Hamarkadan. Austrian Suitzan, Espainian eta Estatu Batuetan ere erabili izan dira. 10 bat zelula edo talde sortzen dira, bakoitza 25 bat herritarrekin osatua. Gai bat lantzen da eta zelula guztiak aldi berean jarduten dute 4 edo 5 egunetan zehar. Horrela 250 edo 500 pertsonak ere parte hartu dezakete prozesuan aldi berean. Zelula bakoitzak adostutako lehentasunak leku bateratu batera eramatean ditu, eta zelula bakoitzeko ordezkarien artean lehenesten dira erabakiak interesdunei aurkeztu aurretik.

- Inkesta deliberatiboak, DOP:

1994an egin zen lehen aldiz Britainia Handian, baina gerora Kanadan, Estatu Batuetan, Danimarkan, Hungarian, Bulgarian eta abarretan ezagutu izan dira. Prozesuak honetan datza: boto-emaileen laginketa probabilistiko hartu, euren iritzien zundaketa bat egin, gaiaren inguruko informazio orekatu bat bidali, adituek gidatutako informazio saioetan eztabaidatzeko talde txikietan bildu, eta berriz ere euren iritzia zundatu. Batzuetan komunikabideetan zuzenean eman izan dira saio hauek, horrela gizartean iritzi hauek eragina izan dezaten.

- Herritarren Batzarrak:

Hurrengo atalean kasuak azalduko dira. Parte hartzaileak 32-160 herritar bitartean izan ohi dira, eta hautaketa zozketa estratifikatu bidez egiten da. Hilabete bat edo bi irauten duen prozesuan zehar 4-6 saioetan biltzen dira herritarrak. Lehen atalean adituen aldetik informazioa jasotzen da eta galderak egiteko edo informazio gehiago eskatzeko aukera izaten dute herritarrek. Bigarren atalean, erraztaileek dinamizatutako lantaldeetan gomendioak sortu beharko dituzte kontsentsu bidez. Gomendio hauek agintarien aurrean aurkezten dira prozesuaren amaieran

5. taula Minipublikoen ezaugarriak

	Herritarren epaimahaiak	Planifikazio zelulak	Kontsentsuzko konferentziak	Inkesta deliberatiboak (DOP)	Herritarren Batzarrak
Herritar kopurua	12-26	100-500	10-25	100-500	32-160
Saio kopurua	4-5 egun	4-5 egun	7-8 egun	2-3 egun	Bi hilabete (4-6 saio)
Hautaketa modua	Zozketaz	Zozketaz	Zozketaz eta norbere aukeraketa	Zozketaz	Zozketaz eta norbere aukeraketa
Ariketa	Informazioa eta deliberazioa	Informazioa eta deliberazioa	Informazioa eta deliberazioa	Informazioa eta deliberazioa	Informazioa, kontsulta eta deliberazioa
Emaitzak	Erabaki kolektiboa	Iritzi galdetegia eta erabaki kolektiboa	Erabaki kolektiboa	Iritzi galdetegia	Gomendio xeheak

Iturria: Elstob, S. (2014) *Elstob, S. eta McLaverty, P. ean publikatua, Deliberative Democracy: Issues and Cases*, Edinburgh University Press.

4.4.3. *Feminismoaren kritika*

Kritika feministak eremu publiko habermasiarraren izaera baztertzailerak salatzen du, eztabaida-prozesuak erakunde politikoetatik kanpo ez ezik, eremu publiko mediatikotik haratago ere kokatu beharko lirakeelako, ahulenak ahaldundu daitezkeen espazioak sortuz. Eztabaida non kokatzen den ez ezik, eztabaidak eremu publikoan ezartzen dituen arauak ere zalantzan jartzen ditu feminismoak.

Horrela, publiko burgesaren eta beste batzuen arteko harremana gatazkatsua dela azpimarratu izan du; izan ere, publiko gatazkatsua arau burgesetatik kanpo geratzen da, portaera-estilo ezberdinak eta diskurtso publikoko arau alternatiboak martxan jarritz.

Horregatik, mendeko publikoek (langileak, emakumeak, gutxiengo etnikoak...) diskurtso paraleloak sortzen dituzte, non kontradiskurtsoa identitate, interes eta beharren prestakuntzaren eta birdefinizioaren bidez garatzen den. Esfera publiko ugari beren identitate kolektiboa osatzea eskaintzen diete mendeko publikoei.

Jone Martinez (Martinez J., 2017) ikertzaileak kontra-publiko feministak aldarrikatzen ditu. Inklusioa du ezaugarritzat demokrazia deliberatiboak, baina sektore zaugarri asko kanpoan gelditu izan dira espazio misto horiek ez baitira egokiak ikuspuntu batzuk azaltzeko. Ondorioz, lantalde hauek ez mistoak izango dira eta emakumeek bakarrik hartuko dute parte.

Kontra-publiko feminista horietan 1) errazago identifikatuko dituzte ohiko foro parte hartzaileek bazterketa gauzatzeko dituzten ezaugarriak; 2) landuko dute bazterketa bat gertatzen den momentuan horri aurre nola egin; 3) nahiz eta bidean dauden hesiak gainditzea oso zaila izan (oso zaila baita barneratuta dugun dominazio kultura errotik aldatzea), lehen pausuak emango dira berrikuntza demokratiko horiek inklusiboagoak izateko bidean.

4.5. DEMOKRAZIA DELIBERATIBOA. EBALUAZIOAREN GARRANTZIA

Graham Smith ikertzailearen arabera, (Smith, G. 2019) demokrazia deliberatiboa ikasgai konplexua eta eztabaidagarria da, baina baditu ezaugarri komun batzuk. Horietako bat aniztasunarena da, mota honetako prozesuek talde sozialen ikuspegi askotarikoak hartu behar dituzte kontuan; deliberazioa presentzian, artikulazioan eta ikuspegi askotarikoak kontuan hartzean oinarrituko da.

Demokrazia deliberatiboak aniztasunaren aurrean irekia izatea eskatzen du, baita aniztasun horrekiko errespetuzko jarrera izatean ere, honek ekarriko du erabaki edo epai politiko ponderatuak egitea, ikuspegi ezberdinak txertatu direla bermatzen denean gertatuko da hau.

Noski, deliberazioaren praktikak irekia eta askotarikoa izan behar badu, honen inguruko ikerketak ere halaxe izan behar du. Ikerketa bakoitza ekintza-praktika bidez garatuko da, eta prozesuaren inguruko galderak eginez lortuko da ikerketaren diseinua osatzea. Askotan ikerketarako metodologia osatzen da jakin gabe prozesuaren nondik norakoak zeintzuk diren, eta Graham Smithek horri buelta ematea proposatzen du.

Ikerketa metodologia hauek berritzaileak izan behar dute, ez dute betiko metodo tradizioaletan bakarrik zentratu behar. Egiten diren ekintza solteak ebaluatu eta elkarren arteko alderaketak egiteaz gain, terminologia sistemikoago bat erabiltzea beharrezkoa da, adibidez, herritarren ahalduntzeaz eta berrikuntza zibikoari buruz hitz egitea.

4.5.1. *Nola neurtu deliberazioa*

Deliberazioa neurtzeko hiru ikuspegi ezberdin aztertuko dira jarraian (Ercan S., Asenbaum H., Curato N., Mendonça R. (2022): diskurtsoaren kalitatea neurtzeko indizea; arrazoi deliberatiboa neurtzen duen indizea; eta entzutearen kalitatea neurtzen duen indizea.

- Diskurtsoaren kalitatea neurtzeko indizea (DQI)

DQI bezala ezagutzen den indize honek politikan egiten diren interakzioen deliberazio maila neurtzen du; eztabaida parlamentarioetan, deliberazio prozesuetan eta halakoetan erabili izan da. Eztabaida batean parte hartzen duen kideak bere iritzia azaltzen duenean ematen duen mailari deitzen zaio diskurtsoaren kalitatea. Hau neurtzeko orain arte erabili izan den jatorrizko indizeak bost adierazle barnebildu izan ditu:

- a) Parte hartze berdintasuna: hitzartze bakoitzean gertatzen diren mozte kopurua neurtzean datza.
- b) Justifikazio-maila: arrazoitzearen egitura nola egin den neurtzean datza, ebaluatzen du zenbateraino hizlariak justifikazio osoak ematen dituen eta zenbateraino euren iritzia arrazionala den.
- c) Justifikazioaren edukia: justifikazioaren edukia taldearen edo eztabaidan parte hartzen duten kideen interesekoa den neurtzean datza.
- d) Errespetua: deliberazioaren lehentasunezko printzipio bat izaki, taldeenganako errespetua, egiten diren eskaerenganako errespetua eta ematen diren argumentu, zein kontra-argumentuen aurreko errespetua neurtzean datza.
- e) Politika eraikitzailea: kontsentsua bilatzeko ahalegina neurtzean datza.

Jatorrizko indize honek, ordea, baditu puntu itsuak, eta horregatik aldaketak egin zaizkio azken urteetan. Parte hartzea neurtzerakoan interbentzio bakoitzak hartzen duen denbora eta maiztasuna; partaide guztiak berdinkide moduan hartuak izan diren; hitzartzeetan solaskideei eta haien argumentuei erreferentziarik egiten zaien; eta abar.

- Arrazoi deliberatiboa neurtzeko indizea (DRI)

DRI bezala ezagutzen den indize honek talde mailan egiten den arrazoiketa neurtzen du. Elkarrizketan parte hartzen duten norbanako bakoitzak egiten duen arrazoiketen batura baino handiagoa da talde mailan egiten dena; metakontsentsuaren ideia garatzen du. Hau da, norbanako bakoitzaren arrazoa askotarikoa izan daiteke, baina akordio baten barruan; askotariko arrazoi horiek barnebilduko dituen akordio bat da bilatzen duena, eta hori izango da neurtuko dena.

Beraz, norbanakoaren iritzia arrazoitua, errespetuzkoa, ebidentziak mahia gainean jartzen dituen eta abar baldin bada, eta gainerakoena barneratzen saiatzen bada, arrazoiketa hobeago bat izango da emaitza. Neurtzeko erabiltzen den sistema inkesta bidezkoa da, erabili diren arrazoiketekin ados-desados diren galdetuta, edo arrazoiketen sailkapen bat eginda.

- Entzutearen kalitatea neurtzeko indizea (LQI)

LQI bezala ezagutzen den indize honek norbanako batek bestearengana egiten duen entzutea neurtzen du. Kide batek hitz egiten duenean, gainerako kideek berau entzuterakoan duten jarrerari deitzen diogu entzutea. Oso zaila da ebaluatzea pertsona bat kalitatez entzuten dabilen edo besterik gabe isilik dagoen. Indize honek pertsonak behatzea proposatzen du, eta begiratzea ea hizlariak amaitu arte itxaron egiten duen, hizlariak esandakoari erantzuten dion edo jarraipenik ez duen iritzi berri bat azaleratzen duen.

Indize honek 5 jarrera hauek erabiltzen ditu pertsona baten entzutea neurtzeko:

- a) Ez entzutea. Entzuleak hizlaria informatzen du esanez ez duela entzuten
- b) Entzuleak azaltzen du hizlaria entzuten dabilela. Entzun egiten du, baina moztu egiten du isiltzeraino
- c) Entzuleak ez du isilarazten entzulea. Entzuleak ez du mozten hizlaria hark amaitu arte; entzuleak ahalbidetzen du hizlariak hitz egitea
- d) Entzuleak gogorarazten du hizlariaren iruzkin bat.
- e) Entzuleak erantzuten dio hizlariari. Erantzuna hitzezkoa izan daiteke, edo fisikoa (buruarekin baiezkoa azaldu eta abar)

4.5.2. Ebaluaziorako irizpideak. OCDE

Demokrazia deliberatiboaren berrikuntza olatuan gaude gaur egun, eta prozesuak egin ahala, material gehiago ari da sortzen honen inguruan. Hala ere, oraindik, material gutxi dago gisa honetako prozesuak esperientzietan oinarrituta aurrera egiteko. Graham Smithek aipatzen duen bezala, prozesu hauek ikertzea eta ebaluatzea ezinbestekoa da bide honetan sakondu eta hobetu nahi bada. Hori horrela, OCDE erakundeak prozesu hauen ebaluaziorako irizpide batzuk proposatzen ditu (OCDE, 2022):

- Zergatik ebaluatu?
 - a) Prozesu arrakastatsu baterako giltzarria izango delako prozesu deliberatiboaren ebaluazioa.
 - b) Edozein talde deliberatibok egiten dituen gomendioen aurrean arduradun politikoek, publikoak eta interes taldeek konfiantza indartuko dutelako.
 - c) Prozesu deliberatibo baten neutraltasuna eta kalitatea ebidentzian utziko dituelako.
 - d) Prozesu batetik bestera ikasteko aukera ematen duelako.
 - e) Agintari publikoei aukera emango dielako prozesu deliberatiboak aurrera eramaten dituzten profesionalak identifikatzeko.

- Ebaluaziorako bost printzipio
 - a) Independentzia. Iraupen luzeko prozesu deliberatiboetan ebaluazioak inpartziala izan behar du, eta horretarako ezinbestekoa izango da independentea izatea. Agintari publikoekin harremana izango du, baina emaitzak ez du izango inongo eraginik euren harremanean. Ebaluazio taldeak ez du izan behar interesik emaitzarekin
 - b) Gardentasuna. Ebaluatzaileen hautaketa gardena eta argia izan behar da. Prozesuaren baitan dauden dokumentu, bilera eta bara irisgarriak izan behar dira eta ebaluatzaileek eskura izan behar dituzte.
 - c) Ebidentzietan oinarritutakoa. Ebaluazioak datu fidagarri eta balioudunak erabili behar ditu; horretarako inkestak, elkarrizketak, behaketak eta erabilitako dokumentuen azterketa erabili behar dira
 - d) Irisgarria. Ebaluatzaileek baliabide finantzario nahikoa izan behar dute beharrezkoa duten informazioa lortzeko. Prozesuaren antolaketan ebaluatzaileek informazioa jasotzeko izango dituzten espazio eta denborak azaldu behar dute.
 - e) Eraikitzailea. Ebaluazio erabilgarri batek antolatzaileei pistak emango dizkie hurrengoko prozesu bat bideratzeko. Ebaluazioak zentratu behar du prozesu horrek izan duen kalitatean eta inpaktuan.

- Ebaluazioaren zikloa hiru etapetan.

Ebaluazio sakon batek beharrezko hiru pauso izan behar ditu: prozesuaren diseinuaren osotasuna, deliberazioaren esperientzia eta inpakturako bideak.

6.Taula.. Ebaluazioaren zikloa hiru etapetan



Iturria: OCDE (2021). *Evaluation Guidelines for Representative Deliberative processes*, OCDE publishing, Paris.

- Prozesuaren diseinuaren osotasuna: antolatzaileek gai politikoa kokatuko dute eta prozesu deliberatiboa diseinatuko dute jendea biltzen hasi aurretik. Ebaluatzaileak behatuko dute erabaki horiek nola hartu diren, helburuak argiak eta legitimoak diren, diseinurako erabili diren aukerak helburuei lotuta dauden, eta ea prozesuan parte hartuko dutenek nahiko denbora izango duten ikasteko eta deliberatzeko.
 - **Helburua**: deliberazioa martxan jarri duen prozesuaren diseinua ebaluatzea.
 - **Irizpideak**: helburu argia eta egokia; kokapen argia era inpartziala; diseinu egokia; prozeduren diseinuan parte hartzea; gardentasuna eta gobernantza; eta inklusioa eta adierazgarritasuna

- Deliberazioaren esperientzia: behin prozesu deliberatiboa martxan jarrita, eztabaida lekuan eta hortik kanpo gertatzen den guztia da garrantzitsua. Horren barruan sartzen dira aurkeztutako proben eta alderdi interesdunen zabaltasuna, aniztasuna eta argitasuna, erraztaileen kalitatea, hitz egiteko aukerak, parte hartzeko oztopoak kentzea, nahi ez den arreta arintzea eta interferentzia-saiakerak.
 - **Helburua:** prozesu deliberatiboaren garapena ebaluatzea bai deliberazio lekuan, baita hortik at ere.
 - **Irizpideak:** erraztaileen neutraltasuna eta inpartzialtasuna; baliabideen erabilera irisgarria, neutrala eta gardena; zabaltasuna, aniztasuna, argitasuna eta proben egokitasuna; epaiaren kalitatea; partaideek ezagutzak handitzea; hitz egiteko aukera berdintasuna, errespetua eta elkar ulertzea; erabakitzeko eta erantzuteko askatasuna; eta lantaldeko kideen intimitatearen aurrean errespetua

- Inpakturako bideak: behin prozesu deliberatiboa amaituta eta gomendioak osatuta, antolatzaileek gomendioak nola barneratzen dituzten behatu beharko da. Gomendio guztien gaineko erantzuna eta justifikazioa eskatzen da. Batzuetan, beharrezkoa izango da publiko orokorrak gomendioak nola hartu dituen neurtzea.
 - **Helburua:** Prozesuaren ondorioak eta eragina izango duten ekintzak ebaluatzea.
 - **Irizpideak:** Gomendio eraginkorrak; erantzuna eta jarraipena; eta partaideen asistentzia.

7.taula. Ebaluazioaren zikloa hiru etapetan. Irizpideak

	Prozesuaren ebaluazioa		Emaitzen ebaluazioa
	<i>Prozesuaren diseinuaren osotasuna</i>	<i>Deliberazioaren esperientzia</i>	<i>Inpakturako bideak</i>
Helburua	Deliberazioa martxan jarri duen prozesuaren diseinua ebaluatzea	Prozesu deliberatiboaren garapena ebaluatzea bai deliberazio lekuan, baita hortik at ere.	Prozesuaren ondorioak eta eragina izango duten ekintzak ebaluatzea.
Irizpideak	<ul style="list-style-type: none"> • Helburu argia eta egokia; • Kokapen argia era inpartziala; • Diseinu egokia; prozeduren diseinuan parte hartzea; • Gardentasuna eta gobernantza; • Inklusioa eta adierazgarritasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Erraztailetzaren neutraltasuna eta inpartzialtasuna • Baliabideen erabilera irisgarria, neutrala eta gardena • Zabaltasuna, aniztasuna, argitasuna eta proben egokitasuna • Epaiaren kalitatea • Partaideek ezagutzak handitzea • Hitz egiteko aukera 	<ul style="list-style-type: none"> • Gomendio eraginkorrak • Erantzuna eta jarraipena • Partaideen asistentzia.

Iturria: OCDE (2022)

4.6. BERRIKUNTZA DEMOKRATIKOAK. ESPERIENZIAK.

4.6.1. *Hiru gertakari*

Atal honetan orain arte gertatu diren hiru berrikuntza demokratiko esanguratsuen adibideak erabiliko ditugu: 2016an Irlandan abortuaren inguruan egin zena; 1989an Porto Alegren egindako aurrekontu parte hartzaileen esperientziaren laburpen bat; eta Belgikan 2019an sortu zen hirugarren erakunde demokratikoaren ezaugarriak. Adibide hauen azalpena emango da ikusteko esperientzia bakoitzaren berrikuntza demokratikoen ezaugarriak zeintzuk diren, eta zer nolako hibridazioa egiten duten.

- Irlandako Herritarren batzarra (Ganuza eta Mendiharar, 2020)

Lehen kasua Irlandan topatuko dugu 2016ko urritik 2018ko apirilera arte. Urte askotako eztabaida, gertakari eta erabakiren ondoren, 2016ko hauteskunde kanpainan zentralitate handia hartu zuen abortuaren gaiak; hori horrela, gehiengo sinplea zuen zentroko gobernuak bere legegintzaldian abortuaren gaia berrikusiko zuela hitzeman zuen, eta prozesu deliberatibo bat martxan jarriko zuela gai honi irtenbide bat emateko.

2012tik 2014ra ospatu zen beste prozesu baten bide beretik jarraitu zuen Irlandako herritarren batzarrak. 2012an sexu berdineko bi pertsonen arteko ezkontzaren inguruan deliberazio prozesu bat egin zuten 99 pertsonen artean; 33 arduradun-politiko eta 66 herritarrek osatu zuten lantaldea, eta emaitza erreferendum bat egitea izan zen gaiaren inguruan herritarren bozka jasotzeko.

Bide beretik, Herritarren Batzarra sortuko zen eta berau 99 herritarrek osatuko zuten; gainerako prozesuetan egin zen bezala, hemen ere parte hartzaileak zozketa bidez aukeratuak izan ziren. Aukeraketarako orduan lau aldagai izan ziren kontuan hartu zirenak: sexua, adina, klase soziala eta lurraldea. 5 saio izan zituen prozesuak 6 hilabetetan barna, eta larunbata egun osoa eta igande goizak ziren biltzeko momentuak.

Ohikoa den bezala, adituen ekarpenak jaso zituzten bertaratutakoek, eta deliberazio fase baten ostean, gomendio batzuk publikatu zituzten ondorio gisa. Gomendio horietako bat erreferenduma egikaritzea izan zen, eta gobernuak gomendioari jaramon eginez, 2018an erreferendum bat egitea proposatu zuen eta parte hartze altu batekin boto emaileen %66ak abortuaren aldeko bozka eman zuen. Erreferendum hartan parte hartu zuten gehiengoak esan zuen Herritarren Batzarrak publikatutako ondorioak zeintzuk ziren bazekitela, eta bozka ematerako orduan kontutan hartu zituztela.

- Porto Alegreko aurrekontu parte hartzaileak (Goldsmith eta Vainer, 2007)

Brasilen aurrekontu publikoak egin eta gauzatzearen historia botere-kontzentrazioarekin, baliabideak xahutzearekin, gai politikoekin eta ustelkeriarekin lotutako deformazio larriek markatzen zuten. Porto Alegren istorio hau aldatu egin zen. 1989an, Porto Alegreko Udalak sistema berritzaile eta iraultzaile bat sortu zuen udal aurrekontua formulatzeko eta haren jarraipena egiteko.

Aurrekontu Parte-hartzailea izeneko sistema honetan, ez zuten bakarrik udal-gobernuko teknikariek eta agintariek parte hartzen, eta ez zuten beren bulegoetan itxita zeuden zerga-bilketari eta funts publikoen gastuari buruz erabakitzen. Herritarrek erabakitzen zuten eztabaida- eta kontsulta-prozesu baten bidez, diru-sarreraren eta gastuen zenbatekoa, inbertsioak non eta noiz egin, lehentasunak zein ziren eta Gobernuak gauzatu behar zituen planak eta ekintzak zein ziren.

Aurrekontu Parte-hartzaileek erakutsi zuten baliabideen administrazio gardena eta demokratikoa zela ustelkeria eta funts publikoen xahuketa saihesteko modu bakarra. Teknokraten kontrako iritziren bat gorabehera, herritarren parte-hartzeak erakutsi zuen gastua eraginkorra zela behar zen tokian, eta obra publikoetan eta beste eremu batzuetan lortutako lorpenak garrantzitsuak zirela herritarrentzat. Hasieratik, Aurrekontu Parte-hartzaileen bidez erabakitako proiektuek 700 milioi dolarretik gorako inbertsioak suposatzen zituzten, batez ere hiri-azpiegituretan eta biztanleriaren bizi-mailaren hobekuntzan.

Aurrekontu Parte-hartzaileek erakutsi zuten, halaber, parte hartzeko mekanismo eraginkorrak izateko asmoa eta Gobernuak biztanleriak erabaki zuena egiteko konpromisoa funtsezkoak zirela gizartea estatutik lotzen zuten kateak eta oztopo burokratikoak hausteko eta herritar aktibo eta mobilizatuak eratzeko. Geroago, Porto Alegren, herritarrek arazo publikoak ezagutu zituzten eta horiei buruz erabakitzen zuten, eta, beraz, beraiek bihurtu ziren beren etorkizunaren protagonista.

Herritarren % 60k ezagutzen zuten Aurrekontu Parte-hartzailea, iritzi publikoari buruzko azterlan baten arabera, eta milioika pertsonak aktiboki parte hartu zuten prozesuan, gai zehatzak jorrazteko topaketetara, eskualdeko konbentzioetara edo batzarretara joanda.

Gerora, gutxienez 70 hirik erabili izan dute aurrekontu parte-hartzailearen sistema Brasil osoan, Porto Alegren izandako esperientzian oinarrituta.

- Belgikako Herritarren Kontseilu iraunkorra eta Herritarren batzarra (Oidp, 2019)

2019an Belgikako Herritarren Kontseilu iraunkorra sortu zen Ostbelgien lurraldean, legebiltzarraz eta botere exekutiboaz gain, hirugarren erakunde demokratiko gisa sortu zen.

2019ko otsailaren 25ean alderdi politiko guztiek bozkatu zuten herritarren kontseilu iraunkor hau eta herritarren batzar bat sortzearen alde. Helburu nagusien artean, erabakitze prozesuen aurrean herritarrek euren ahotsa edukitzeaz gain, kontrolerako sistema bat eraikitzea nahi zen herritarrek entzunak izango

zirela bermatzeko. Azken finean, proiektu honek bilatzen duena da konpromisoen aurrean agintariak ebidentziak azaltzea eta agenda kontuetan herritarren boterea indartzea.

Bi organoak herritarrez osatuta daude, eta herritarren ezaugarriak ordezkatzeko dituzte generoaren, adinaren, hezkuntzaren eta bizilekuaren arabera. Bertan parte hartzea ez da derrigorra eta norbanakoaren gastuak ordainsari batekin estaltzen dira.

Herritarren kontseilua 24 herritarrek osatzen dute, eta 18 hilabetez betetzen dute funtzio hau; honela, lan egin behar duen herritarrak epe jakin batean bakarrik bete behar du konpromiso hau, eta urte luzez herritar asko pasako dira organo honetatik. Egitekoen artean Herritarren batzarra prestatzea eta gai-ordena zehaztea daude, organo honek ez du gomendiorik sortzen. Kontseilu honek gaia mahai gainean jartzen duenean, Herritarren batzarra sortzen da, eta prozesu deliberatibo honen epealdia ere zehazten da, 50 bat herritarrek osatuko dute lantaldea. Batzar honek gomendio ez lotesle batzuk sortuko ditu informazioa jaso eta deliberazio ariketa bat egin ostean; honen ondoren, legebiltzarrak, gobernuak eta ministerioek erantzun egingo diote gomendio hauei. Gomendio hauen gaineko erabaki loteslea legebiltzarrak dauka.

4.6.2. Hibridazioa

Berrikuntza demokratikoak aztertzerakoan 5 kritika ezberdin sailkatu dira, eta bakoitzak ditu bere egiteko moduak, helburuak eta abar. Hala ere, aurrera eramaten diren prozesuak familia bakoitzean kokatzen diren arren, beste familia batzuetako ezaugarriak ere bereganatzen dituzte, kasu askotan. Aurreko atalean gaineratik azaldu diren hiru prozesu hauetan argi eta garbi ikusten da hibridazioa deitzen diogun ezaugarri hau egikaritzen dela.

Irlandan 2012an abortuaren inguruan sortu zen prozesu deliberatiboan herritarrek eta politikariek hartu zuten parte, eta hor esan daiteke gobernantza kolaboratzailea ere egon zela, herritarrak eta politikariak eremu berean eta berdinkide moduan egin baitzuten lan, eskubide eta betebeharrak berdinekin.

Irlandako bi kasuetan prozesu deliberatiboa bukatzean emaitza moduan erreferendum bat martxan jartzea gomendatzen da. Erreferenduma demokrazia zuzenaren adibiderik garbiena bezala azaldu da lan honetan, beraz, hemen ere hibridazioaren adibide garbi bat dago.

Porto Alegreko kasua demokrazia ordezkatzaileraren adibide den aurrekontu parte hartzaileetan kokatzen dugu. Justizia eta berdintasuna helburu dituen prozesu bat izan zen Brasilgo hau; herritar zaugarrienak ahalduzko prozesu bat, eta agintari eta klase sozial guztietako jendeak eskubide eta betebeharrak berdinekin izateko. Aurrekontu parte hartzaileak izan baziren ere, herritarren arteko deliberazio espazio asko gauzatu ziren bertan. Herritarrak lantaldetan bildu, informazioa jaso, bakoitzaren argudioak mahai

ganean jarri eta eztabaida sakonak eman ziren kontsentsua bilatu aurretik. Beraz, esan daiteke demokrazia deliberatiboarekin hibridatzen dela prozesu hau.

Belgikako azken adibidea hartzen bada, herritarrek osatutako bi organo deliberatibo aztertu daitezke. Bietan ere deliberazio bidez, gomendioak luzatuko zaizkie agintariei; baina organo hauek Ostbelgien lurraldeko hirugarren organo demokratikoak dira, alderdi guztiek eta herritarrek onartzen dituztenak eta euren eskubide eta beharrak dituztenak. Beraz, hemen ere, Irlandako kasuan bezala, gobernantza kolaboratzailea agertzen zaigu hibridaziorako ezaugarri bezala.

5. GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARRA. ANALISI ENPIRIKOA.

5.1 GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARRA. EBALUAZIOAREN BEGIRADATIK.

Arestian aipatu bezala, 2022ko udazkenean hasi eta 2023ko urtarrilean amaitu zen Herritarren Batzarraren ebaluazioa aztertuko dugu atal honetan. Antolatzaileek Parte Hartuz sailari eskatu zioten prozesuaren ebaluazio bat egiteko txosten bat aurkeztuz; gauzak horrela, gure lantaldeak ebaluazio txostena aurkeztu zien antolatzaileei prozesua amaitu eta aste batzuetara.

Txosten hau osatzeko herritarrek bi galdetegi bete zituzten prozesuan zehar. Lehena, Hernanin egin zen lehen saioan bete zuten, prozesuari buruz zituzten ezagutzei, espektatibei, eta gogoei buruzkoa. Bigarrena, aldiz, prozesuaren amaieran, Gipuzkoako Batzar Nagusietan bete zutena, izandako esperientziari buruzkoa.

Galdetegi honetan OCDE-k planteatzen duen “diseinua, deliberazioa, inpaktua” marko deliberatiboa errespetatu genuen, baina ohiko estruktura gaindituz, beste elementu batzuk ere txertatu genituen, ebaluazio osoago bat jasotzeko asmoz; horrela, ikuspegi deliberatiboaz gain, partaidetzaren inguruan garrantzitsuak diren irisgarritasuna, inklusioa, lidergoak, kapital sinbolikoak eta abar jasotzen saiatu ginen aipatu galdetegi horietan. Berehala aurkeztuko den atal enpirikoan bi galdetegietan jasotako adierazlerik nagusienak, eta horietatik ateratako ondorioak ere aurkeztuko dira.

Ebaluazio txostenean, galdetegian jasotako erantzunak eta zuzenean guk geuk 4 saio haietan behatutakoa jaso genuen, baina Master Amaierako Lan hau idatzi bitartean, aurrez aipatu diren 15 elkarrizketak ere jaso dira, eta ebaluazioa osatzeko oso lagungarriak izan dira. Atal honetan, elkarrizketa horietan jasotakoa ere txertatuko du egileak. Beraz, hiru profil ditugu datuak konparatzerako orduan: herritarrak (galdetegia eta elkarrizketak), adituak edo antolatzaileak, eta behatzaileok ateratako ondorioak. Jasotako datuak azaltzen hasi aurretik, garbi utzi behar da herritar guztiek ez zutela ikuspuntu berbera elementu berdinekiko, edo antolatzaile-adituek ere banaka erantzun dituztela galderak, eta hemen ere ikuspuntu ezberdinak agertzen direla. Lan honetan hiru profilak landuko direnez, nagusitu diren, edo aipagarriak diren iritziak hartuko dira kontuan.

Behaketarako momentuan, elkarrizketak egiterako orduan eta txostena idazterakoan, 4 ardatz nagusi izan genituen kontuan une oro lan honen marko teorikoan azaldu bezala, eta atal hau ardatz horien arabera aurkeztuko da. Ardatz nagusi horiek honakoak dira: irisgarritasuna, inklusioa, gardentasuna eta deliberazioa, eta inpaktua. Ardatz bakoitzeko punturik esanguratsuenei heldu eta profil bakoitzetik (herritarrek, antolatzaile-adituak, behatzaileak) atera genituen ondorioak konparatuko dira atal honetan.

Egileak garbi utzi nahi du prozesu honetan bai herritarrek, bai prozesua antolatzen ibili zirenek, baita erraztaileek ere lan paregabea egin zutela hasieratik bukaeraraino. Galdetegitik, elkarrizketetatik eta behaketatik ateratako ondorioak dira zati honetan ikusiko ditugunak, beti ere, metodologia hobetzeko eman beharreko pausu posible batzuk proposatuz; inolaz ere ez da helburua egindakoa kritikatzeko edo parte hartu zuen inor seinalatzea.

5.1.1. Irisgarritasuna

- Irisgarritasun fisikoa eta giroa.

Bai herritarren aldetik, bai antolatzaileen aldetik, baita behatzaileen aldetik ere positiboki baloratzen dira erabilitako espazioak eta hauen erosotasuna. Gipuzkoako Batzar Nagusietan amaitzeak prozesuari nolabaiteko garrantzia eman zion, eta espazio aldetik lanerako aproposak diren guneak izan ziren hautatuak. Dinamizatzaileek lan egokia egin zuten pertsona bakoitza bertaratua izan zedin bermatzeko; garraioa, ordutegiak eta abar.

- Informazioa.

Prozesuaren amaieran egindako galdetegian herritarrek oso ondo baloratu zuten jasotako informazioa; hain zuzen ere 8,3ko puntuazioa eman zieten, altua, beraz.

Prozesua hasi aurretik banatutako informazioa ere egokia izan zela ondorioztatu zen guztien artean; izango zuten programa, saio bakoitzean egin beharreko lanak, eta lortu beharreko helburuak garbi gelditu ziren hasieratik. Herritar bakoitzak telefonoz eta paperezko eskutitz bidez jaso zuen informazio hau, eta ulerterraza egin zitzaizkien denek.

Lehen bi saioetan hizlari asko pasa ziren herritarren aurretik, eta esperientzia eta jakintza asko elkartrukatu zituzten guztiekin. Kasu batzuetan, gainera, galderak egiteaz gain, baserritar eta ekoizleekin mahaietan bertan elkartzeko aukera izan zuten herritarrek.

Beraz, behatzaileen aldetik ere ondorioztatu genuen prozesuari buruzko informazioa eta edukiei buruzkoa gardena eta sakona izan zela.

- Dinamikaren jarraipena

Galdetegietan jasotako emaitzen arabera, eta herritarrei egindako elkarrizketetan dinamika jarraitzeko zailtasunik ez zutela izan adierazi zuten. Galdetegian jasotako adierazle ia guztiek gora egiten zuten prozesuaren hasieratik amaierara; norberak egindako ekarpenak 6,6tik 6,7ra; emandako iritzi arrazoituak 6,8tik 7,5era; entzuna sentitzea 7,5etik 8ra; eta norberak emandako maila 6,5etik 7ra; aldiz, hasieran ikasteko zuten espektatiba 9,1ekoa zen, eta amaieran 8,4koa. Beraz, ikusten da erraztaileek oso ondo landutako ariketak eraman zituztela lantaldeetara, eta sormen lanak egitea kostatu izan bazitzairen ere, ariketen erritmoa jarraitzea ez zitzaizela zaila egin.

Aldiz, 2.1. elkarrizketan adierazten da ez zutela asmatu denak kontuan izaten. Pertsona batzuei asko kostatu zitzaizela bai aurkezpenak jarraitzea, baita egin behar zituzten ariketen erritmoa jarraitzea ere. Aurrerantzean, metodologia deliberatiboen erronka izango da ohituta ez dauden herritarrak horrelako prozesu batean partaide izateko dinamikak mahai gaineratzea.

Behatzaileok ere garbi ikusten genuen adinaren faktoreak eragin handia zuela prozesua jarraitzeko orduan. Adin nagusia zuten kide asko hasieratik galduta ibili ziren, oso zaila baitzen erritmoa, hizkuntza, bete beharreko fitzak eta abar jarraitzea. Adin gazteena zutenen talde bat ere, dinamikatik nahiko kanpo egon ziren prozesuan zehar; interes faltak edo dinamikaren tipologiak taldetik kanpo kokatzera eraman zituzten momentu askotan.

- Hizkuntzaren erabilera

Hizkuntzaren erabilera erronka bat izan da antolatzaileen aldetik. Herritarren herenak gutxi gorabehera, ez zuen ulertzen euskaraz, beraz, aldibereko itzulpen zerbitzua egon da prozesu osoan zehar. Ponentzia guztiak eta dinamizatzaile nagusiak emandako azalpen guztiak euskaraz izan dira, eta ulertzen ez zutenek aldibereko itzulpena jaso dute aurikularren bidez. Lantaldeetako dinamiketan, aldiz, itzulpenik erabili ezin zenez, bi lantalde euskaraz izan ohi ziren, beste bat ele bietan, eta laugarrena gaztelania hutsean.

Hori horrela, bai herritarrek, bai antolatzaileek, baita behatzaileok ere, hizkuntzaren kudeaketa egoki bat egin zela ondorioztatu dugu. Euskaldunei bermatu zitzairen informazio guztia euskaraz jasotzea eta lantalde ia guztietan euskaraz jardutea; euskaraz ulertzen ez zutenei ere bermatu zitzairen dinamika osoa jarraitzeko baliabideak izatea.

1.7. elkarrizketatuak aipatzen du berari esan ziotela prozesu osoa euskaraz egiteko aukera izango zuela, eta berak dio hori ez zela bermatu. Lantalderen batean, ulertzen ez zuten pertsonak tokatu zitzaizkiola, eta ulermena bermatzeko gaztelaniara jo behar izan zuela.

Behatzaileok atera genuen ondorio bat izan zen hizkuntza izan zela lidergoak markatzeko elementu oso garrantzitsu bat. Hau da, gaia oso lotuta zegoen lehen sektoreari eta Gipuzkoako lurraldean kokatzen zen gainera. Jakina da Gipuzkoako lehen sektorean euskara dela hizkuntza nagusia, eta horrek ekarri zuen eskaraz ari zirenen esanak eta iritziak balio gehiago izatea.

Ondorio horrekin ez dago ados 2.5. elkarrizketatua, haren ustez hizkuntzaren kudeaketa egokia izan zen eta ez zen izan lidergoak sortzeko elementu bat.

- Politikarien leku sinbolikoa

Prozesua amaitzeko Gipuzkoako Batzar Nagusietan egin zen azken saioan, Foru Aldundiko ordezkariak bertaratu ziren. Gomendioak aurkezterako orduan, herritarrak euren eserlekuetatik mugitu eta aurkezleen aurrean kokatu ziren politikariak eta prozesuaren antolatzaileak.

Antolatzaileen aburuz, politikariak bertaratzea ideia ona izan zen, honek ematen baitzion garrantzia eta legitimazioa prozesuari. Aldiz, elkarrizketetan aipatzen du 1.5. elkarrizketatuak oso keinu zatarra izan zela herritarrak euren lekutik kanporatzea. Prozesu osoan lanean jardun zirenak erdigunetik kendu eta azken momentuan etorri zirenak hartu zutela espazioa. Behatzaileok ere unean bertan ohartu ginen, berez, garrantzitsua zen momentu hark deserosotasuna sortu zezakeela herritarrengan, erdigunea okupatu baitzitzaien herritarrei.

8. Taula. *Analisi enpirikoa. Irisgarritasuna*

Ardatza	Elementua	Herritarrak	Adituak- antolatzaileak	Behatzaileak
Irisgarritasuna	Irisgarritasun fisikoa eta giroa.	Egokia	Egokia	Egokia
	Informazioa	Egokia	Egokia	Egokia
	Dinamikaren jarraipena	Egokia	Hobetzeko	Hobetzeko
	Hizkuntzaren erabilera	Egokia/hobetzeko	Egokia	Egokia/hobetzeko
	Politikarien leku sinbolikoa	Hobetzeko	Egokia	Hobetzeko

5.1.2. Inklusioa

- Generoa

Horrelako prozesuetan generoak garrantzia handia izaten du; lidergoak, botere harremanak, hitz egiteko denborak eta abar kontuan hartzen baditugu, oso ohikoak izaten dira generoen arteko ezberdintasunak; ohikoena da genero maskulinoak espazio gehiago hartzea.

Prozesu honi dagokionez, elkarrizketatuek, antolatzaileek eta behatzaileek nahiko argi ikusi genuen erraztaile lanetan ibili zirenek sekulako lana egin zutela ezberdintasun hau eman ez dadin. Genero maskulino eta femeninoaren arteko oreka bat eman zen, beti ere erraztaileek proposatutako dinamika baten barruan jarduten zuten bitartean.

Horren harira, erraztaile batek, Parte Hartuz-ek Bilbon egindako nazioarteko jardunaldietan, prozesua aurkeztu zuen euren begiradatik, eta aipatu zuen nola erraztaile lanetan asmatu zuten genero banaketa ekiditen prozesuan zehar. Aldiz, une askotan erraztaileek pausu bat atzera ematea nahi izaten zutela, herritarrek autonomoagoak izateko asmotan, eta momentu horretan bai agertzen zirela genero ezberdintasunak eta gizartean egunerokoan agertzen diren portaera gain-hartzaileak.

- Ordainsaria

Herritarren Batzarraren ezaugarrietako bat da parte hartzen duten herritarrei ordainsari bat ematea egindako lanaren eta pasatako denboraren truke. Horrez gain, garraioan egindako gastua ere dieta moduan ordaindu izan zaie. Gipuzkoako kasu honetan 400€ inguruko ordainsari bat izan zuten herritar guztiek, garraioaren dietez gain.

Egindako galdetegiaren arabera, herritarrek 4,1eko puntuazioarekin baloratu zuten ea euren partaidetza ordainsariak baldintzatu zuen galdetutakoan. Herritar bakoitzak, bere kasuan, garrantzia kendu zion ordainsariari; guztira hiru pertsonak adierazi zuten ordainsariak asko eragin ziela parte hartzerako orduan.

Herritarrek, antolatzaileek eta behatzaileok bat egiten dugu ordainsariaren kontua positiboki baloratzean. Parte hartzen dutenek lan handia egin zuten, eta denbora asko pasa zuten bertan, euren eguneroko betebeharrak eta deskantsuak alde batera utzi eta gizartearentzat onuragarriak izan zitezkeen gomendio sorta idazten; diruz ordaindu beharreko zerbaitek dela ondorioztatu dugu bertan ibili garen kide guztiok.

Horrez gain, ordainsaria emateak jende gehiago erakartzea ahalbidetzen du. Nahiz eta herritarren gehiengoak galdetegian erantzun zuen eurak ez zutela parte hartu ordainsariarengatik, herritarren laurdenak aitortzen zuen ordainsariak eragina izan zuela parte hartzera animatzeko erabakian. Saiotetan herritarrekin izandako elkarrizketetan behatzaileok nabari dugu, berez, herritarren laurdenari baino gehiagori eragin ziola ordainsariak parte hartzerako orduan, eta galdetegian ez zutela hala erantzun, honek eragin dezakeen lotsarengatik.

Gauzak horrela, klase maila baxuagoko herritarrak ere parte hartzera bultzatzen ditu ordainsariak, eta hori kontuan hartu beharreko zerbait da. Gizartean dauden soslai ahalik eta gehien ordezkatu nahi bada, beharrezkoa da horrelako erabakiak hartzea, bestela, horrelako denbora tarteak hartzeko baldintza onak dituen herritarrak soilik animatuko baitira prozesu hauetara.

Kontrara, elkarrizketatu batek, 1.3. elkarrizketatuak adierazi zuen ordainsariaren ideia beharrezkoa iruditzen zitzaiola, kide bakoitzak lan handia egiten baitzuen denbora tarte luze batez; baina honek bazuela ondorio negatibo bat: soilik ordainsariaren truke parte hartzen duen jendeak ez du interesik prozesua egoki burutzean, eta horrek taldeko dinamikan asko eragiten du, eta kudeatzea oso zaila da.

- Aniztasun kognitiboa eta klase sozialaren subalternitatea

Aipatu dugun bezala, herritarren soslai ahalik eta anitzena ordezkaturik izatea da zozketa estratifikatua egitearen helburuetako bat. Horregatik aniztasun kognitiboa eta klase sozial subalternoen herritarrak egon daitezke prozesu hauetan. Antolatzaileen ikuspegitik eta behatzaileok ere horrela antzeman dugu, ariketa deliberatibo hauek ez daudela prestatuta lantaldeetan lan egitera ohituta ez daudenentzat, ikasketa maila baxua dutenentzat, aniztasun kognitiboa dutenentzat eta abar. Ariketa hauek ondo jarraitzeko, hezkuntza maila altua izan behar du herritarrak, eta hori ez da gizartearen ispilua.

Azucena Moran ikertzaileak Parte Hartuz-ek antolatutako jardunaldietan kritikatu zuen metodologia hau, esanez mendebaldeko ikuspegiarekin sortutako tresna bat zela, ikuspegi oso europeista zuela eta ez zituela kontutan hartzen munduaren hegoaldean edo pobrezia maila altuagoan bizi ziren herritarrak, gizarte horietan baliabide gutxiago baitago jendeak gisa honetako hezkuntza jasotzeko. Feminismoak egiten duen kritika ere bide beretik doa, deliberazio metodologia hauek publiko burgesarentzat soilik egindakoa dira, eta herritar subalternoen bestelako mekanismoak behar dituzte euren eskubideak eta beharrak aldarrikatzeko.

Honi lotuta, jarrera disruptiboak ere eman ziren prozesuan zehar, lantaldea kritikatu, eta dinamika hautsi nahi izan dutenak. Erraztaileen aldetik jarrera horiek ere barnebiltzeko erronka eta nahia adierazi da, hauek kanpoan uztea ez baita soluzio bat.

- Kontziliazioa

Herritarren parte hartzean eragin zuen beste elementu bat kontziliazioarena izan zen. Herritarrek erantzun zuten ordainsaria izan zitekeela kontziliazioari erantzuteko baliabide bat, baina elkarrizketaren batean jasotakoaren arabera, edo izandako esperientzietan oinarrituta, esan genezake Herritarren Batzar honek ez ziola behar bezala erantzun kontziliatzeko zailtasunak izan zitzakeen pertsona bati. Gainera, kontziliazio kontutan ere, genero ezberdintasuna nabarmena izan zen erabakiak hartzerako orduan.

Erraztaileek balorazio bileran aitortu zuten ezin izan zutela 0-3 urteko umeak zituzten amarik lortu prozesuan parte hartzera; aldiz, adin horretako haurrak zituzten aitaren bat edo beste bai izan zen prozesuan. 1.2. elkarrizketatuak aitortzen du lau haurren aita dela, eta hala ere, prozesuan parte hartzera animatu zela emaztea eurekin utzita.

Antolatzaileekin egindako bileran ere Tolosako Herritarren Batzarrean gertatutako kasua azaldu zuten. Aukeratuak izan ziren guraso bik haurtzaindegi zerbitzuarengatik galdetu zuten, eta halakorik ez zela egongo erantzun zitzairen. Horren ondorioz, bikote hartako gizonak prozesuan parte hartzea erabaki zuen, eta emazteak ez.

Beraz, garbi ikusten da kontziliazio neurririk hartzen ez bada, genero bereizkeria sustatzen dela parte hartzaileen artean.

- Arrazakeria

Parte hartu zuten herritarren artean jatorri ezberdinetako jendea egon zen, eta elkarrizketetan kolonbiar jatorria duen donostiar batek dio bera oso ondo sentitu dela alde horretatik. Bere egunerokoa ez duela arrazakeriarik jasaten, eta prozesuan bertan ere errespetu osoz ibili zela beste herritarrekin batera.

Aldiz, behatzaileok ikusi dugu saioaren batean iruzkin arrazistak egon zirela herritar bat edo besteren aldetik. Gauzak horrela, erraztaileen aldetik jatorri, erlijio, orientazio sexual, edo sinesmen oro errespetatzeko araua landu beharko litzateke, eta hori hautsiko balitz, esku hartu. Beraz, genero ezberdintasuna ondo landu izan zen bezala, gizartean dauden iritzi arrazistak ere egoki kudeatzea litzateke erraztaileen beste erronka bat.

9. Taula. *Analisi enpirikoa. Inklusioa*

Ardatza	Elementua	Herritarrak	Adituak-antolatzaileak	Behatzaileak
Inklusioa	Generoa	Egokia	Egokia	Egokia
	Ordainsaria	Egokia	Egokia	Egokia
	Aniztasun kognitiboa eta klase sozialaren subalternitatea	Egokia	Hobetzeko	Hobetzeko
	Kontziliazioa	Egokia	Hobetzeko	Hobetzeko
	Arrazakeria	Egokia	Ez dago informaziorik	Hobetzeko

5.1.3. Gardentasuna eta deliberazioa

- Gogobetetzea

Herritarrei egindako galdetegian ikusten da gogobetetze maila handiarekin bukatu zutela prozesua, 10 puntuko eskala batean 8tik gorako batezbestekoa atera zen. Prozesuaren amaieran sortutako gomendioekin identifikatuta sentitzen ziren galdetu zitzaizenean ere, 10etik zazpi puntuko batez bestekoa atera zen. Beraz, esan daiteke, orokorrean, herritarrak gogobetetze maila handiarekin bukatu zutela prozesua.

Antolatzaileei egindako elkarrizketetan ere antzeko zerbait ondorioztatu daiteke. Orokorrean, helburuak beteta bukatu zutela adierazi dute, nahiz eta hobetzeko hainbat puntu identifikatu. Behatzaileon aldetik ikusi genuen hasieran jarritako helburuak bete egin zirela, eta herritarrek eta erraztaileek sekulako lana egin zutela beraien eginbeharrak burutzerakoan.

- Deliberazioaren kalitatea

Elementu honen inguruan ere badaude kontuan hartu beharreko adierazle batzuk galdetegian. Erraztaileen lanak 8,5 puntuko batezbestekoa jasotzen du herritarren aldetik 10 puntuko eskala kontuan hartuta; euren lanean izandako neutraltasunari buruz galdetuta, 9 puntuko batezbestekoa jaso zuten, eta profesional hauen laguntzari buruz galdetu zitzaizenean 32 herritarretatik lauk bakarrik erantzun zuten ez zutela behar besteko laguntzarik jaso, gainerakoek laguntza egokia jaso dutela adierazi zuten. OCDE-k deliberazioaren kalitateari buruz proposatzen dituen 9 galderetako batez bestekoa ere 8 punturen ingurukoa da. Galdera hauetan ea ikuspuntu ezberdinak kontuan hartu ziren, ea entzunak sentitu ziren, hitz egiteko aukerarik izan zuten, eta abar galdetu zitzairen.

Herritarrekin egindako elkarrizketetan, adituei egindakoetan, baita egindako behaketan ere, orokorren deliberazioaren kalitatea egokia izan zela ondorioztatzen dugu. Aipatu beharra dago erraztaileek lehen saioan egindako sesgoen ariketak, eztabaidarako pautak, aurkezpenak eta abarrek eragin oso positiboa izan zutela gai honen inguruan.

Herritarrek elkarrekin sortu zuten giro ona ere giltzarria izan zen. Hasieratik nahiko ondo moldatu ziren eta errespetuzko lantaldea izan zen orokorrean; nahiz eta kasuan kasu, egon ziren salbuespenak ere.

Erraztaileek asko zaindu zuten herritar guztiek ahotsa izan zezaten, baita kide guztien erritmoak ere; aurreko atalean inklusioaren aldetik hobetzeko erronka gisa aipatu bada ere, arlo honetan egin zen lana azpimarratzekoa izan zen. Gehiago edo gutxiago, baina herritar denak prozesuan inplikatuak egon ziren, eta guztiek jarraitu zuten dinamikan parte hartzen; ez zen inor guztiz erori, eta prozesuaren hasieran erronka potolo gisa ikusten zen hori bera.

- Lidergoa

Lidergoei erreparatzen badiegu, galdetu zenean ea egon zen eztabaidak dominatu zituen herritarrik 10etik 7 puntuko batezbestekoa izan zen erantzuna. Hau da, herritarrek ere nolabait ikusi zuten egon zela eztabaida edo elkarrizketak menperatu zituen kiderik.

Herritarrei egindako elkarrizketetan ez da jaso lidergo horien zergatia nondik datorren, baina behaketatik bai jaso genituen bi elementu lidergoa eragin dutenak: hizkuntza eta generoa.

Nahiz eta erraztaileen aldetik sekulako lanak egin, eta aurrera emandako dinamikak hori hautsi nahi, genero maskulinoak lidergoa hartzen zuen kasu askotan, eta zeresanik ez, erraztaileek pausu bat atzera egin eta herritarrei autonomoagoak izatera bultza izan zieten. Lehen aipatu bezala, egunerokoan gizartean dauden portaerak gailentzen dira kasu horretan, baita Herritarren Batzar honetan ere.

Hizkuntzari dagokionean ere, lehenagoko zatian aipatu den bezala, Gipuzkoako lehen sektoreari buruz hitz egin zen gehienbat saio hauetan, eta lehen sektoretik gertu zeuden gehienak oso euskaldunak ziren, egunerokoan euskaraz bizi direnak; horrez gain, Gipuzkoako lehen sektorean euskara gailentzen da gehienbat. Horrek ekarri zuen lehen sektoreari buruz gehien zekitenak euskaraz ere jakitea, eta gaztelaniaz hitz egiten zutenak lehen sektoretik ez hain gertu ikustea; horrela ondorioztatu dugu, kasu honetan, euskara izan zela lidergoak sortzeko elementu bat.

- Denbora

Denbora falta izan zen herritarrek bai prozesuan zehar, baita elkarrizketetan ere negatiboen baloratu duten puntua. Egindako galdetegian ere, herritarren ia %60ak erantzun zuen denbora gutxiegi izan zutela ariketa behar bezala egiteko. Aldiz, herritarren %10ak soilik erantzun zuen denbora gehiegizkoa izan dela orokorrean.

Herritarrek askotan errepikatu zuten denbora gehiago behar zutela adituei eta agente sozialei entzuteko. Jende hori hain gertu edukita informazio gehiago ateratzeko oso denbora estua izan zutela, eta eurekin elkarrizketak izateko, eta gomendioak formulatzeko denboraren kontra ibili zirela prozesu osoan zehar.

Erraztaileen aldetik eta behatzaileon aldetik ikusi genuen herritarrek denbora gehiagoren eske ibili zirela etengabe, eta horrek antsietate momentuak ere eragin zituela, baina, hala ere, denboraren kudeaketa egokia egin zela ondorioztatu dugu.

Denboraren kudeaketa ona izan zela arrazoitzeko bi arrazoi azpimarratu nahi ditugu: batetik, prozesu osoa behar bezala egiteko denborak ondo kudeatu beharra, oso garbi zegoen jasota egun bakoitzean helburua zein zen, eta gaian adituak direnen aldetik jaso beharreko informazioa nahikoa zen, nahiz eta herritar batzuk euren interesengatik denbora askoz luzeago nahiko luketen. Une horien luzatzeak

prozesu osoa luzatzea edo gomendioen formulatzetik denbora kentzea ekarriko zukeen, eta hori ez litzateke zuzena izango.

Bestetik, kide batzuek hainbesteko informazio bolumena jasotzeko zailtasun handiak izango lituzkete. Hasieran aipatutako herritarrek nahikoa izan zuten jasotako informazioa jarraitzen, beraz, bolumena handituko balitz, zailtasunak ere areagotuko lirateke.

Behaketatik ondorioztatu genuen beste elementua zen prozesua gehiegi luzatu zela epeetan; hau da, saio batetik bestera denbora luzeegia izan zela, eta asteburu bakoitzean lan handia egin behar izan zutela azken asteburukoa berriz ere barneratzeko. Horrez gain, azken asteburua Gabonetako oporraldiaren ostean izan zenez, eten handiegia egon zen.

- Laguntza teknikoa

Gomendioak idazterakoan izan zuten laguntza teknikoari buruz galdetu zenean, 4 pertsonak bakarrik erantzun zuten ez zutela behar bezalako laguntzarik jaso. Beraz, gogobetetze maila oso altua jaso zen herritarren aldetik puntu honekiko.

Antolatzaileen edo erraztaileen aldetik, eta behaketaren aldetik, ikusi genituen hutsune batzuk aldundiko teknikariak gomendioak formulatzen lagundu zutenean. Azken asteburuan, gomendioen formulazioa nahiko aurreratua zegoenean, aldundiko teknikariak bertaratu ziren gomendioen idazketa behar bezala egiteko laguntza eskaintzera; euren helburua zen idazketa teknikoa zuzena izan zedin bermatzea, eta ez edukietan sartzea.

Agian, proposatu zen dinamika ez zelako guztiz egokia izan, edo teknikariei oso zaila egin zitzaielako soilik idazketan sartzea, baina momentu horretan herritarrek idatzitako gomendioen edukiei buruz ere asko hitz egin zen, hauetako asko aldatzeraino, eta hori ez zen une horretako helburua. Teknikarien presentziak gehiegi interbenitu zuen edukietan, eta aldaketa gehiegi eman ziren gomendioetan.

10. Taula. *Analisi enpirikoa. Gardentasuna eta deliberazioa*

Ardatza	Elementua	Herritarrak	Adituak- antolatzaileak	Behatzaileak
Gardentasuna eta deliberazioa	Gogobetetzea	Egokia	Egokia	Egokia
	Deliberazioaren kalitatea	Egokia	Egokia	Egokia
	Lidergoa	Egokia	Hobetzeko	Hobetzeko
	Denbora	Hobetzeko	Egokia	Egokia
	Laguntza teknikoa	Egokia	Hobetzeko	Hobetzeko

5.1.4. Inpaktua

- Politikarekiko eta partaidetzarekiko ahalduntzea

Egindako galdetegian ikusten zen herritarrek ikastea espero zutela prozesu honetan eta behin amaituta, horrela izan zela azaldu zuten; zehazki 8,4 puntu ematen zizkioten hasieran, eta bukaeran igo egin zen 9,1 arte. Beraz, argi ikusten da horrelako prozesuek herritarrek ikasi eta ahalduntzeko balio dutela.

Erraztaileekin hitz eginda, eta behatutakoaren arabera, garbi ikusi dugu ikaste prozesu oso sakon bat izan zela Gipuzkoako Herritarren Batzarra. Batetik, edukiarekiko ahalduntzea dago; hizlari asko pasa ziren lehen sektorean eta klima aldaketan adituak zirenak, baita errealitate ezberdinak bizi dituzten baserritar, ekoizle eta abar ere.

Behaketatik, ordea, interesgarriago deritzogu partaidetzaren ikuspuntutik begiratzea; inoiz horrelako prozesu edo antzeko batean ibili gabeko jende askorekin egin genuen topo, eta gehiago edo gutxiago guztiek barneratu zituzten lantalde batean jarduteko elementuak. Azken saioan egindako hausnarketan, herritar batek argi zioen, hasieran, bere motibazio nagusia galderari erantzutea zela, hau da, lehen sektorearekiko eta klima aldaketarekiko kezka zuela eta gai hori lantzerantz joan zela Batzarrera; aldiz, bukatutakoan adierazi zuen edukiarekiko baino, gehiago ikasi zuela taldean lan egiten, ohartu zela orain arte ez zekiela gehiegi jendearekin lan egiten, entzuten, konfiantzaz jokatzeko... baina prozesu honetan asko ikasi zuela lan horiek egiten.

- Prozesuaren baliagarritasuna

Hasierako galdetegitik bukaerakora beheranzko joera izan zuen adierazle bakarrenetakoa da honakoa. Ea horrelako prozesu gehiago egin beharko liratekeen galdetzen zenean, hasieran 8,4 puntu jaso zituen erantzunak, baina prozesua amaitu ostean 8,1 eskuratzen zituen. Puntuazio altua den arren, beherakada txiki bat izan zuen, beste adierazle guztiek ez bezala.

Elkarrizketetan, ezin izan dugu honen arrazoi zehatzik jaso, baina beste aditu batzuekin hitz eginda, nahiko ohikoa den jaitsiera dela ondorioztatu dugu. Hasieran egindako espektatibak ez betetzearen ondorioz izan daitekeela uste dugu.

Hori horrela izanik ere, aditu-antolatzaileek eta behatzaileek garbi ikusten dugu horrelako prozesuetan sakondu egin behar dela, esperientzia gehiago izan, eta hobetzekoak implementatu. Oraindik oso esperientzia gutxi dago gure lurraldean, eta gisa honetako prozesuak baliagarriak diren ondorioztatzea oso zaila da. Hala ere, nazioartean izandako esperientzia ezberdinak ikusita, eta Herritarren Batzarra bezalako metodologia batek teorikoki izan ditzakeen indarguneak aztertuta, baliagarri izatera iritsi daitezkeela uste dugu.

Prozesuen erabakigarritasunean ere azpimarra egitea ez dago gaizki. Hasieran herritarrek 7,4 puntu ematen zizkioten ea gisa honetako prozesuek lotesleak izan behar zuten galderari; aldiz, prozesua amaitu ostean, 8,3 punturaino igo zen adierazlea. Baliteke, hau ere espektatibekin lotuta egotea, hau da, horrelako lana egin ostean, euren eskuetatik ihes egin eta politikarien asmo onen esperantzan gelditzen da hortik aurrerako kudeaketa guztia.

- Espektatiben asetzea

Herritarrei eginiko galdetegian eta elkarrizketetan jasotzen da eurak idatzitako gomendioekin egingo denaz ez zeukatela espektatiba handiegirik. Batzuk erantzun zuten ez dela ezer egingo, beste batzuk zioten gauza gutxi egingo dela, konfiantzaz eta konfiantzarik ezaz hitz egiten zuten beste batzuk, baina bazeuden gomendioekin zerbait egingo zela uste zuenik ere.

Antolatzaileek sinesgarritasuna ematen zioten prozesuaren jarraipenari; gomendioek beren bidea egingo dutela diote, eta era batera edo bestera, herritarrek idatzitakoa inplementatuko dela uste dute.

Behatzaileon aldetik ikusten dugu politikarienganako konfiantzan oinarritzen dela guztia; herritar bakoitzak, duen ikuspegiaren arabera, gomendioak gauzatu egingo direla edo ez esaten baitu. Nahiz eta, hiru itzulketa saio aurreikusten diren, gomendioen inplementazioan parte hartze handiago izateko mekanismoak topatu beharko lirakeela uste dugu behatzaileok.

- Erakundeen inplikazioa

Herritarren aldetik ez genuen gai honekiko ezer negatiborik jaso, ez zuten faltan bota izan eremu politikoaren presentzia. Lehen saioko aurkezpenean, partaidetzako diputatua Eider Mendoza egon zen, eta azken saioan, gomendioan aurkeztu zirenean, Mendoza bera, eta Xabier Ezeizabarrena Batzar Nagusietako presidentea egon ziren saioan.

Behatzaileon ikuspegitik, prozesuan zehar, faltan bota genuen lehen sektorearen edo klima aldatetaren gaiarekin ardura politikoa duen pertsonaren bat. Saiotan zehar, behin baino gehiagotan agertu ziren arloarekiko lotura duten teknikariak, baina erabaki nagusiak politikariak hartzen dituzte, eta arduradun horiek bertan egoteak sinesgarritasun gehiago emango lioke egin zen lan guztiari.

- Prozesuaren jarraipena

Herritarrek positiboki baloratu zuten prozesuaren jarraipen batzordean eurak ere parte hartzea. Zehazki, saio bakoitzean aukeratutako bi ordezkari joan ziren batzorde honetara, eta eurak egindakoa azaldu zuten. Kontrara, bertan egondako herritar batek adierazi zigun, itxurakeria bat izan zela euren partaidetza batzorde horretan, eta ez zuela inongo esperantzarik han bertan bildu zirenekin.

Atal honetan garbi utzi behar da Gipuzkoako Aldundiak elkarrizketak egin ostean egin zuela gomendioen itzulketa, Gipuzkoako Foru Aldundian bertan. Gomendio bakoitzarekin zer egingo zuten, gomendio bakoitzaren inplementazio maila zein izango zen, bakoitzaren aurrekontua, eta epeak ageri ziren txosten batean. Aurkezpen hau herritarren, erraztaileen eta behatzaileen aurrean egin zuten. Herritarrei eskaini zieten jarraipen zehatzagoa egiteko Whatsapp talde bat sortuko zutela, eta bertatik emango zutela ekintza bakoitzaren berri. Horretaz gain, beste bi itzulketa saio egingo dira hurrengo bi urteetan, gomendio bakoitzaren inplementazioa zein fasetan dagoen azaltzeko.

Saio honen ostean ez dugu jasotzerik izan zein izan den herritarren asebetetzea, horregatik, ez dakigu baikor jarraitzen duten edo ez. Behatzaileoi aurkezpena txukuna iruditu zitzaigun arren, ohartu ginen oso zaila zela herritarrentzat jakitea benetan zer ari zen gertatzen gomendio bakoitzarekin. Herritar bat galdu egiten da aurrekontuetan, lehendik martxan hasita dauden egitasmoetan, epeetan eta abar; beraz, oso zaila da jakitea ea benetan gomendioak herritarrek idatzita bezalaxe jarraitzen duten edo ez. Whatsapp talde bat osatzearena, berriz, ideia txarra ez den arren, jarraipena egiteko modu oinarritzkoegia dela iruditu zitzaigun.

11. Taula. Analisi enpirikoa. Inpaktua

Ardatza	Elementua	Herritarrak	Adituak- antolatzaileak	Behatzaileak
Inpaktua	Politikarekiko eta partaidetzarekiko ahalduntzea	Egokia	Egokia	Egokia
	Prozesuaren baliagarritasuna	Hobetzeko	Egokia	Egokia
	Espektatiben asebetetzea	Hobetzeko	Egokia	Hobetzeko
	Erakundeen inplikazioa	Egokia	Egokia	Hobetzeko
	Prozesuaren jarraipena	Hobetzeko	Egokia	Hobetzeko

6. HERRITARREN BATZARRA OSATZEKO GILTZARRIEN BILA. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Behin Gipuzkoako Herritarren Batzarraren ebaluazioak eman duenaren analisisa eginda, ikusi genezake non lituzkeen metodologia honek bere indarguneak eta ahulguneak. Lan honetan erakutsi diren esperientziak aztertu badira ere, benetan, sakonki ikertu dena Gipuzkoako Herritarren Batzarra soilik izan da; horregatik, garbi utzi behar da ondorio bezala aurkeztuko den proposamenaren abiapuntua egin den azterketa dela, gehienbat.

Ikusi dugu Herritarren Batzarra baliagarri den metodologia bat dela, badaudela esperientziak non gatazka politikoak kudeatzeko tresna gisa balio izan dutenak, herritarrak ahalduntzekoak, politikagintzarako gerturatzeko tresnak dituztenak eta beste xede asko lortzeko balio dutenak ere izan direla. Pasa den hamarkadan hasi ziren esperientzia berri gehienak ezagutzen, eta gaur egun Europako lurralde askotan ditugu martxan gisa honetakoak. 2022-2023 urteetan Gipuzkoan bertan bi herritarren batzar egin dira, aztertu dugunaz gain, Tolosako udalerrian ere egin da buru osasunari buruzko beste bat. Beraz, aurreikusi daiteke, gure inguruan ere erakundeek horrelako esperientzia gehiago martxan jarriko dituztela.

Prozesuaren diseinu arduraduna izan den Arantxa Mendiharatek bere liburuan dion bezala (Ganuz eta Mendiharate 2020), politikagintzarekin nekatuta dagoen gizarte batentzat berrikuntza oso interesgarria izan daiteke. Egunerokoan gertatzen diren gatazkak eta konpondu ezin diren arazoak kudeatzeko mekanismo bat baita; herritarrek asko ikasi, landu eta korapiloak askatzeko proposamenak egingo dituztena. Behaketan ibili garen lantaldeak ere hala uste du, beti ere, esperientzietatik abiatu eta hobekuntza batzuk txertatzen badira.

Lanaren hasieran planteatzen diren hipotesiei begiratzen badiegu, esan dezakegu hauek bete egiten direla orokorrean.

- Herritarrek badute zalantzarik euren gomendioekin zer gertatuko den galdetzen zaienean. Gomendioak euren eskuetatik askatu eta beste batzuk kudeatu behar dituzte, eta horrek eramaten ditu erabakiak lotesleagoak izan beharko luketela pentsatzera.
- Egon dira ezaugarri bat baino gehiago prozesuaren erritmoa eta dinamika jarraitzea oztopatu dietenak. Hala ere, kide guztiek osatu dute prozesua, beraz, hipotesietan baieztatutakoaren kontrara, batetik edo bestetik atera dute motibazioa prozesua amaitzeko.
- Prozesuaren kanpo komunikazioa oso gutxi landu da, eta horren ondorioz herritarrek ez dute informaziorik izan egindakoaren inguruan. Honek ekarri du inpaktu oso txikia izatea herritarrengan.
- Ebaluazio lantaldea etapa deliberatiboan soilik egon da, eta horregatik ezin izan du diseinuaren etapa ebaluatu. Inpaktua ebaluatzeko garaian ere, lantaldea deseginda dago honezkero, eta ezingo du hemendik aurrerakoaz hitz egin.
- Herritarrak jakin dute behatzaileok zertan ari ginen, baina elkarrizketetan garbi esan digute ez dutela zehazki inoiz jakin gure lana zer zen. Horrez gain, antolatzaileak eta fasilatzaileak ere gure lana ulertu gabe gelditu dira ebaluazio txostena aurkeztu dugun arte.

Atal honetan, beraz, analisi enpirikoan agertu diren hobetzekoak txertatzeko bide orri bat proposatuko da, baina, alde aurretik, egileak garbi utzi nahi du Gipuzkoako Herritarren Batzarrean lan bikaina egin dutela parte hartu duten erakunde eta agente guztiek. Denbora, jakintza eta errekurtsio askoko inbertsio

bat izan da, eta ebaluatzaile bezala, indarguneak eta hobetzekoak identifikatu direnez, arrakastarako gakoak izan daitezkeen ideia batzuk ematea da helburua.

Hain zuzen ere, hobekuntza hauek bi norabideetan joango dira: batetik, metodologiaren diseinuari begiratuko zaio, eta horretan, berrikuntza deliberatibotik haratago joan eta gainerako berrikuntzen arteko hibridazio bat proposatuko da. Bestetik, behatzaile gisa, prozesu honen ebaluazioan ikusi ditugun hobekuntza batzuk identifikatu eta metaebaluazio bat, edo ebaluazioaren ebaluazio parte hartzaile bat izango da proposatuko dena.

6.1 HIBRIDAZIOA, DEMOKRAZIA DELIBERATIBOTIK GAINERAKO KRITIKAK BARNERATZERAINO.

Lan honetan behin eta berriz aipatu dugun bezala, Gipuzkoako Herritarren Batzarra demokrazia deliberatiboaren barruan kokatzen dugu, eta esan genezake, gainera, beste berrikuntza demokratikoen oso espazio gutxi izan dutela prozesu honetan. Zozketa bidez izan bada ere, herritar batzuk bakarrik izan dira aukeratuak, aukeraketa hau modu estratifikatuan egin da, ezaugarri anitz ordezkatuta izateko asmoarekin; partaideek edukiaren gaineko jakintza handia barneratu dute, hizlari asko egon dira eta herritarrek proposatutako gomendioak arrazoitzeke nahiko informazio eduki dute; horrez gain, erabakiak kontsentsuzkoak izan dira, sortu diren gomendioak guztien artean landutakoak izan dira, eta bukaeran denen arteko adostasunarekin onartu dira. Beraz, deliberazioaren ezaugarri nagusienak argi eta garbi azaldu dira: arrazoiketa eta adostasuna.

Sortu diren gomendioen inguruko adostasuna lortzea ez da bereziki zaila izan, galderaren inguruan ez baita benetako dilema edo gatazkarik egon. Herritarren artean ez dago eztabaida handirik lehen sektorearen eta klima aldaketaren aurrean; guztiok nahi dugu lehen sektore indartsu bat, lan-baldintza duinak izango dituen, natura zainduko duena, bertako produktuak sortuko dituen eta abar; eta, orokorrean, klima aldaketaren aurrean ere berdina gertatzen da, inork ez dugu klima aldaketa gero eta handiago izan dadin nahi, denok dakizkigu munduko tenperaturaren aldaketak zer kalte ekarri ahal dizkion gure bizimoduari, eta zeresanik ez, zaurgarrienak diren munduko biztanleei, ingurumenari, eta planetako animalia guztiei.

Herritarrei egindako galdetegian, eta elkarrizketetan, galdetu zitzaion ea prozesuak iritzi aldaketarik eragin zien momenturen baten; gehienek erantzun zutena izan zen iritzi aldaketarik ez zutela izan, hasieran bezala, lehen sektore indartsu baten alde zeudela eta klima aldaketa eragotzi behar dela era batera edo bestera. Prozesu honetan herritarrek lortu zutena lehendik zuten jakintzan sakontzea izan zen; guztiek erantzun zuten iritzi aldaketa bat baino gehiago, lehen zutena indartu egin zutela, informazio asko eta ikuspuntu ezberdinak barneratu zituztela, baina horiek ere lehendik zeukaten ustea indartu besterik ez zutela egiten.

Beraz, ezin genezake esan demokrazia agonistikorik ikusi dugunik prozesu honetan, gatazka barneratu denik. Orduan, nola barneratuko genuke gizartean klima aldaketari buruz, eta lehen sektoreari buruz dagoen gatazka horrelako metodologia batean? Herritarren artean gatazkarik ez badago ere, politikari enpresari eta abarrekin haserrea badagoela nabarmen ikusten da; begira bestela frantziar estatuan klima aldaketaren aurrean egon diren mobilizazioei. Bestelako gai bat balitz, benetan herritarren artean gatazka egongo litzatekeena, nola azalaraziko litzateke eztabaida hori gomendioetan? Proposatutako metodologia egokia da horretarako? Nola egin gatazka eta kontsentsua bateragarri?

Demokrazia parte hartzailearen ezaugarri dira justizia eta berdintasuna, eta aurreko atalean azaldu dugun bezala, kapital sinbolikoak prozesuaren barruan zer leku izan behar duten ondo lantzea da beste erronka potolo bat. Adinak, aniztasun kognitiboak edo funtzionalak, klase sozial baxukoa izateak, hezkuntzak, eta abarrek arazoak sortzen dituzte horrelako metodologia deliberatiboetan; herritar askorentzat ez baita batere erraza era honetako dinamikak jarraitzea, denbora asko mahai baten bueltan egotea, eztabaidatzeko arrazoiak mahai gaineratzea, ulertzeko moduan hitz egitea, eta errespetuz eta soseguz hitz egiteko gaitasuna izatea.

Aztertu dugun adibidean ere ikusi ditugu horrelako kasuak: adinekoei eta gazteei kosta egin zitzaizkien dinamika jarraitzea, klase sozial ezberdinen artean asko igarri zela iruditu zitzaizkien dinamika jarraitzeko orduan; Tolosako Herritarren Batzarraren kasuan, adibidez, ikusmen urritasuna duen herritar batek ezin izan du parte hartu eta Gipuzkoakoan ez da egon haur txiki baten amarik prozesuan parte hartzeko prest egon denik. Azucena Moran ikertzaile eta aktibistak eta feminismoak kritikatzeko moduan, Herritarren Batzar hauek, eta, orokorrean, demokrazia deliberatiboa bera, mendebaldeko gizarteko klase ertaineko herritarrentzat egindako metodologiak dira. Beraz, jakinik gizartearen zati oso handi batek ez duela eskatzen den gisako baliabide eta jakintzarik horrelako saio batzuetan parte hartzeko, nola egin daiteke hauek ere barneratzeko? Nola lortuko da gizartearen ispilu den herritar talde bat ez bada kapital sinboliko hauek guztiak jasotzeko moduko metodologia bat? Sinesgarria litzateke horrelako prozesu bat herritarren zati handi bat kanpoan utziz gero? Nola bermatu prozesuan parte hartzeko aukera berdintasuna? Posible da herritarren zati handi batek parte hartzen ez badu, gomendioetan pertsona guztientzat justizia eta berdintasuna bermatzea? Nola ziurtatu daiteke parte hartzeko aukera berdintasuna?

Metodologia honen beste ezaugarrietako bat da bukaerako emaitza politikarientzako, herritarrentzako edo erakundeentzako gomendio sorta bat aurkeztea. Ariketa oso sakona da, eta herritarrengandik sortutako gomendio sorta batek balio ikaragarria du gaur egun; askotan, politikariek edo enpresariek hartutako erabakiak euren intereserako soilik direla uste da jendartean, horregatik, interes propiorik gabe egin diren herritarren gomendioek indar handia dute, sinesgarritasuna handiagoa, alegia.

Beraz, gomendioak sortze hutsa balioan jartzeko modukoa bada ere, parte hartu dutenek argi azaldu dute politikarienganako konfiantzan oinarritzen dela hemendik aurrerako ibilbidea. Herritarrek berme gutxi

sentitzen dute euren gomendioak benetan gauzatuko diren pentsatzen dutenean; beraz, hori gainditzeko prozesu lotesleago bat gauzatzea litzateke soluzio bat, herritarrek erabakitzea euren gomendioekin zer eta nola egin.

Hasierako atalean azaldu ditugun prozesuetako bat, Irlandakoa hain zuzen ere, herritarrei zuzendutako erreferendum lotesle batean amaitu zen. Herritarren Batzarrean parte hartu zutenek bermatuta zuten bukaeran galdera baten bidez herritarrek erabakiko zutela eta euren gomendioak hori geldituko zirela txertatuta.

Beraz, nola egin daiteke Gipuzkoako Herritarren Batzarreko emaitzen kudeaketa erakundeek soilik egin beharrean, lurraldeko biztanleek ere kudeatu dezaten? Posible al da metodologia lotesleagorik gehitzea egindako lanari?

Ebaluazioan hobetzeko irten den beste puntu bat politikarien presentzia izan da. Behaketan eta herritarrei egindako elkarrizketetan ikusi zen politikariak momentu zehatzetan agertu zirela, baina ez zela egon elkarren arteko kolaboraziorik. Hauxe da hain zuzen, berrikuntza demokratikoen artean faltako litzatekeena, gobernantza kolaboratzailea.

Prozesuaren aurkezpenean eta bukaeran, gomendioak jasotzerakoan eta euren kudeaketan, soilik elkarbanatu zuten espazioa agintariak eta herritarrek. Gainera, bukaerako horretan irudikatu zitekeen herritarrek bukatu zutela euren lana, eta hortik aurrerako guztia ohiko erakundeen kudeaketaren esku uzten zela, errelebo pasatze bat bailitzan. Parte hartzaileen lana hiru hilabetekoa izan zen, hasi eta bukatu egin zena, eta jarraipena oso era sinbolikoan egingo diote aurrerantzean, aurretik aipatu diren Whatsapp taldearen bidez eta egingo diren beste bi jarraipen saioen bidez.

Aurreko atalean aipatu ditugun bi adibideetan agertzen dira herritarrek eta agintariak elkarlanean egin dituzten bi modu ezberdin. Batetik, Irlandako prozesua daukagu, zeinetan Herritarren Batzarrean 66 herritarrek eta 33 parlamentarik parte hartu zuten; aukera izan zuten batak bestearen ikuspuntua barneratzeko, elkar ikasteko, eta guztien artean gomendioak sortzeko. Bestetik, Belgikako kasua daukagu, non botere legegileaz eta exekutiboaz gain, Herritarren Batzar iraunkor bat duten, hirugarren organo ofizial gisa. Iraunkorra izateak balio handia du, parte hartzea momentu bat izatetik, prozesu iraunkor izatera pasatzen delako.

Beraz, nola egin daiteke Gipuzkoako kasuan herritarrek eta agintariak elkar kolaboratzeko, eta ez izateko bi eragile paralelo? Nola bermatu Herritarren Batzarra entitate iraunkor bat izatea, momentu zehatz batean jardun duen batzar bat izan beharrean?

6.1.1. Hibridazioa, Gipuzkoako Herritarren Batzarrean. Proposamena

Aurreko atalean egindako galdera batzuk erantzuten dituen proposamena litzateke hurrengo lerroetan datorrena; prozesuaren ebaluazioan ateratako hobetzeko batzuk, ustez, egokituko dituena. Etorkizunera begira egindako planteamendu bat izango litzateke, beraz, gaur egun ezingo genuke baieztatu hemen idatziko diren balizko hobekuntza hauek ziur era honetako prozesu bat hobetuko luketenik. Aurrerantzean egingo diren prozesuetan inplementatu eta ebaluatu beharko litzateke, ea berrikuntza demokratiko ezberdinak barnebildu diren, eta analisisian kontuan hartu diren lau ardatzak hobeto gelditu diren.

Hasteko eta behin, momentu puntual bat izatetik, modu iraunkor batean funtzionatzera pasa beharko luke prozesu honek, eta horretarako Belgikan ikusi dugun bezala, Gipuzkoako Herritarren Batzar Iraunkorra osatu beharko litzateke, legegintzaldi politikoen 4 urteko erritmoetatik kanpo kokatuko litzatekeena. Etengabe 22 herritar eta 10 politikari egongo lirake Batzarrean; 22 herritar horiek zozketa estratifikatu bidez hautatuak izango lirake eta 2 urteko konpromisoa lukete, urte bakoitzean 11 herritarrek bigarren aldia lukete, eta beste 11 herritarrek lehen aldia. Herritar hauek ordainsari jarraitu bat edo hobari fiskalak izango lituzkete administrazioaren aldetik, gisa horretara prozesu iraunkor horretan motibagarria den pizgarri bat izango lukete jarraitzeko. Politikarien aldetik, Batzar Nagusien era proportzionalean esleituko lituzkete 10 eserlekuak. Batzar Iraunkor honen helburu nagusiak urtero gai bat eta horren inguruko galdera bat formulatzea izango lirake, baita urteroko herritarren batzarrean mahai gaineratuko den edukia eta hizlariak zehaztea eta hartutako erabakien jarraipena egitea ere; hau guztia denen arteko adostasunean osatuko litzateke. Zehaztutako gai horrek behar luke izan momentu horretan herritarren artean dilema garbi bat kausatzen duena (gaur egun, energia trantsizioa eta eolikoak izan daiteke, adibidez), eta jendartean, zein politikagintzan dauden korapiloak askatzeko, edo, gutxienez kudeatzeko balio beharko luke.

Behin gaia, galdera eta edukia zehaztuta, urteroko Herritarren Batzar bat osatuko litzateke, 32 herritarrek osatutakoa. Metodologia aztertu dugun Gipuzkoako Herritarren Batzarrean parekoa litzateke; hemen ere herritarrak zozketa estratifikatu bidez hautatuak izango dira, eta lau saiotan gomendio edo proposamen batzuk osatzera iritsi beharko lukete. Lehen bi saioetan informazioa jasoko lukete, eta dilemaren erpin edo diskurtso ahalik eta anitzenak jasoko lituzkete. Hirugarren saioan, aldiz, lantaldeetako deliberazioa egingo lukete, eta atal honetan erraztaileen aldetik edozein herritarrek jarraitzeko moduko dinamikak planteatu beharko lirake; adin ezberdinetako herritarrak, aniztasun funtzionalak edo kognitiboak dituztenak, klase sozial ezberdinetako kideak eta abar eroso sentiarazteko moduko dinamikak, hain zuzen ere. Bukatzeko, laugarren saioan, gomendio edo proposamenak formulatuko lituzkete, bai agintariei begirakoak, baita herritarrei begirakoak ere.

Urteroko Herritarren Batzar honen lana ez litzateke hemen bukatuko. 32 kide horien artean hautatuak izango dira 8 herritar, eta hauek gomendio edo proposamen hauen kudeaketan parte hartuko dute. Komisio Tekniko bat sortuko litzateke hautatutako 8 herritar horiek, hizlari gisa ibili diren eragileetako

ordezkariek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernuako kideek eta teknikariek osatutakoa. Hori horrela, komisio honen lana proposamena hartu eta horiek ahalik eta era egokienean inplementatzeko planteamenduak egitea izango litzateke. Noiz eta nola gauzatuko liratekeen eta aurrekontua zein litzatekeen landuko lukete, eta aukera bat baino gehiago jarri mahai gainean. Behin hori eginda, Herritarren Batzarrean parte hartu duten gainerako kideei egingo liekete itzulketa, haiek ere ekarpenak egiteko aukera izan dezaten eurak egindako proposamenen kudeaketan.

Urte horretan egin beharreko azken pausu nagusia osatuta dauden proiektuak aurrekontu parte hartzaileetara eramatea litzateke. Urteroko Herritarren Batzarrak proposatu eta Komisio Teknikoak landutako proiektuak Gipuzkoako herritar guztiei proposatuko zaizkie. Lehen zatian, herritarrek proiektuei ekarpenak egiteko aukera izango lukete, bai pertsonalki online edo inprimaki bidez, baita eskualdeka egingo diren lansai presentzialen bidez ere. Komisio Teknikoak ekarpen horiek txertatuko litzieke proiektuei, eta horren ostean aurrekontuen bozketa egingo litzateke.

Ohiko aurrekontu parte hartzaileen bozketa sistema erabiliko litzateke; era telematikoan eta herriz herri jarriko liratekeen postontzietan bozkatu ahal izango lukete herritarrek urtea amaitu baino lehen. Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura litzateke loteslea izango den aurrekontu parte hartzaileen bozketan irtendako emaitzak hurrengo urteko aurrekontu ofizialetan sartzea.

Urte hasieran Herritarren Batzar Iraunkorrek hasiera emandako gaiari bukaera emango liokete aurrekontu parte hartzaileek urte berean. Beraz, hortxe bukatuko litzateke Urteko Herritarren Batzarraren lana. Hau guztiaren inpaktua benetakoa izan dadin ezinbestekoa da kanpo-komunikazio planteamendu egoki bat egitea, tokiko komunikabideetan urte osoan egiten ari diren pausuen eta bertan aterata diren edukien berri izatea gizarteak; horrek bermatuko bailuke gardentasuna proposamenak aurrera eramateko orduan.

Behin prozesu hau amaituta, hurrengo urtekoari ekingo litzaioke, aurretik esan bezala, legegintzaldietako epeen logikatik kanpo eta metodologia era iraunkorrean aplikatuta.

Gauzak horrela, pentsatu daiteke, lan honetan aipatu ditugun lau berrikuntza demokratikoak eta demokrazia agonistikoa txertatuko direla prozesuan. Lehenik, gobernantza kolaboratzailea emango litzateke Herritarren Batzar Iraunkorrean prozesu bakoitzari hasiera ematen, baita Komisio Teknikoan ere gomendioen edo proposamenen kudeaketarekin. Bigarrenik, demokrazia parte hartzailearen ukituak izango lituzke, aurrekontu parte hartzaileen dinamikarekin lortuko litzakeena, herritar guztiek hartu ahal izango lukete parte inongo hautaketarik gabe, eta horrek bideratuko luke azken erabakiak justiziazkoak eta berdintasunera begirakoak izatea. Hirugarrenik, bozketak bermatuko luke herritarrek erabakitakoa loteslea izatea eta demokrazia zuzenaren ezaugarriak ere barnebiltzea. Laugarrenik, prozesuaren erdigunea izango den demokrazia deliberatiboa izango genuke, Herritarren Batzarraren bidez arrazoiketa eta adostasunak lortzea izango baita ariketaren muina. Azkenik, berriz, era batera edo

bestera, hautatua izango den gaiarekiko ikuspuntu eta eragile ezberdinak egongo lirateke, eta gizartean dagoen gatazka barnebiduko luke prozesuak bere baitan.

Aurretik esan bezala, proposamen hau oso xumea da, 2022-2023 urteetan gauzatu den Gipuzkoako Herritarren Batzarra abiapuntu gisa hartuta, eta beste prozesuetako esperientzietatik informazioa jasota egin dena. Proposamen honek ez ditu metodologiak dituen hutsune guztiak estaliko, baina egileak uste du hobetzeko batzuk ondo egokituko liratekeela. Noski, helburuak betetzen dituen ikusteko, planteatzen den moduko prozesu bat edo beste egin beharko litzateke eta ebaluatzaileen aldetik ikusi ea hipotesiak betetzen diren edo ez.

6.2 EBALUAZIOA, IKUSPEGI EZBERDINETATIK

Azken atal honetan Herritarren Batzarra bezalako prozesuen ebaluazioari buruz hitz egingo da; ebaluazioa egiteko moduari buruz, eta ebaluatu behar denari buruz. Ebaluazioari buruz OCDE erakundeak lan honen lehen erdian aipatutako irizpideak eta helburuak ditu finkatuta, eta atal honetan gurea bezalako esperientzia bat eta J. Boswell (Boswell, J., 2021) ikertzaile ingelesak kontatutako beste bat oinarri hartuta, proposamen bat egiten saiatuko da lan honen egilea.

Aurreko zatian adierazi bezala, ez da asmoa OCDE bezalako erakundeen irizpideak eta helburuak kritikatzera, ezta guk egindakoa edo hemen proposatzen dena panazea bat bezala aurkeztea ere. Soilik hibridazioarekin egin dugun bezala, ebaluazioaren ikuspuntutik apur bat altxa, marko deliberatibotik haratago joan eta baliagarriak izan daitezkeen elementu batzuk mahai gaineratzea da helburua. Noski, kasu honetan ere, hurrengo esperientzia batek kontrastatu beharko luke luzatu den proposamena baliagarria den eta zein neurritaraino.

6.2.1. Ebaluaziorako bost printzipioak

Gipuzkoako Herritarren Batzarrean ebaluazio lanetan jardun garen Parte Hartuzeko lantaldeak OCDE-k planteatzen dituen bost printzipioak kontutan hartuta egin dugu lan. Horrela proposatu zaigu prozesua antolatzen jardun diren arduradunen aldetik, eta horrela jardun dugu bertan jardun garen 7 kideok: Igor Ahedo, Miriam Ureta, Iago Lekue eta Andere Ormazabal Parte Hartuzeko kideak, eta Eider Gurrutxaga, Oihane Arretxea eta Imanol Ugarte Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterreko praktikagileak.

Ebaluazioa independentea izan da. Antolatzaile edo arduradun politikoez kanpo EHUko lantalde batek nahiko legitimitate badu horrelako prozesu bat inpartzialki ebaluatzeko. Parte Hartuz-ek ez du dependentziaz antolatzen ibili diren lantaldeekiko, eta horrek ematen dio nahiko askatasun horrelako lan neutral bat egiteko, inongo interesik gabe. Lantaldeak ez du inoiz inoren menpe lanean jardun denaren sentsaziorik izan.

Prozesuaren baitan egon diren dokumentu eta abarretarako gardentasun osoa izan dugu eta antolatzaileek, ahal izan duten heinean, guk eskatutako dokumentu eta datu guztiak eman dizkigute. Egia da, kasu batzuetan, ezin izan dizkigutela datuak eman Datu Babeserako Lege Organikoak hala adierazten duelako. Herritarren jatorria edo maila soziala jakitea nahi izan dugu ebaluatzaileok, ondorio batzuk ateratzeko gakoa litzatekeelako, baina datu hauek ezin izan dizkigute pasa.

Ebaluazio txostena aurkezterakoan, saioa hasi aurretik eta bukatutakoan pasatako galdetegietan ateratako datuak, behaketan erabilitako txantiloien bidez ateratakoak, eta elkarrizketetan jasotako ebidentziak erabili ditugu. Beraz, esan daiteke ebaluazioa ebidentzietan oinarritutakoa izan dela. Egia da, ordea, behatzaile lanetan pertzepzio edo elementu subjektibo asko antzematen direla, eta gauza asko ezin direla elkarrizketetan kontrastatu. Ebaluaziorako garrantzitsuak izan dira guk jasotako pertzepzio asko, beraz, txostenean sartu egin ditugu eta adierazi dugu ebidentziak jasotzea falta izan dela.

Parte Hartuz-eko lantaldeak ez du zuzenean baliabide finantzario nahikoa izan beren lanak egiteko, baina Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Parte Hartuz-en artean badago hitzarmen bat bakoitzaren betebeharrekin, eta dokumentu horretan baliabide finantzarioak ere adostuta daude. Prozesuaren antolaketan ere, ebaluazioa nola egingo den eta lantaldearekin izan beharreko harremanaz ere hitz egin dute antolatzaileek.

Azken printzipioa ebaluazioa eraikitzailea izatea da, hurrengo prozesuek kontutan zan dezaten eta metodologia hobetzeko ekarpenak jaso ditzaten gertatutako esperientzietatik abiatuta. Horixe da, hain zuzen ere, Parte Hartuz-eko lantaldeak egindako ebaluazio txostenaren eta Master Amaierako Lan honen helburua, eraikitzailea izatea. Bai lan batean, eta bai bestean ere, ez dugu prozesuaren auditore bat bezala jokatu, gure helburua ez da izan, besterik gabe, egindako lanari kalifikazio bat jartzea; baizik eta hobetzeko elementuak identifikatu eta hurrengo prozesuei arrakastarako giltzarriak izan daitezkeen gakoak eskaintzea. Horregatik, lan honetan, behin eta berriz, aipatu nahi dut kritika bat egitetik haratago, hobetzeko proposamen bat luzatzea dela helburua; behatutako esperientzia batetik abiatuta, eta hurrengo prozesuetan kontrastatu beharko dena.

6.2.2. Herritar deliberatiboa ebaluazio lanetan. Britainia Handiko esperientzia

Behatzaile lanak egiteko modu ezberdinak dauden arren, ohikoena da erakunde independenteko kide bat edo batzuk antolatzaileekin batera egotea bai prozesuaren diseinuan, bai saio deliberatiboetan, baita inpaktua ebaluatzerako momentuan ere. Herritarren Batzarra erdiesten den momentuan kanpo begirada bat izan ohi du behatzaileak, saioan bertan egoten da, baina ez du parte hartzen herritarren dinamikan; atsedean orduetan eta aparte egindako elkarrizketetan izango du herritarrekin harremana, eta momentu horietan jasoko du nahiko informazio ebaluazio txostena osatzeko.

Hasierako zatian aipatu bezala, Gipuzkoako Herritarren Batzarreko behatzaileok deliberazio momentuan herritarrekin egon gara, euren mahaietan. Dinamikan ez dugu parte hartu, eta ahalik eta gutxien eragiten saiatu gara, bai herritarren lanean baita erraztaileen lanetan ere.

Badago, ordea, egileak lan honetara ezinbestean ekarri nahi izan duen esperientzia bat ere; herritar deliberatibo izan eta, horrez gain, ebaluatzaile rola jokatu zuen J.Boswell ikertzaile ingelesaren esperientzia, hain zuzen ere.

Besteak beste, Herritarren Batzarrak ebaluatzen ibiltzen den ikertzailea da aipatutakoa. Ingalaterrako Kingston upon Thames udalerriko bizilaguna izanik, herrian bertan airearen kalitatearen inguruan egingo zen Herritarren Batzarrerako hautatua izan zen. Gauzak horrela, antolatzaileei proposatu zien herritar deliberatibo bezala behatzaile lanak ere egingo zituela, uste baitzuen begirada ezberdin batetik egindako lanak elementu berri asko mahai gaineratuko zituela. Antolatzaileek proposamena onartu zuten, beti ere, herritar deliberatibo moduan inongo interferentziarik kausatuko ez zuela bermatu ostean; beraz, gainerako herritarrek eta erraztaileek ez zuten jakin izan euren artean behatzaile bat egon zenik.

Ikertzaileak esperientzia honi buruz publikatutako artikuluan 5 ondorio edo proposamen azpimarratzen ditu, besteak beste:

- Herritar guztiak ez dira berdin tratatu behar.

Askotan metodologiek herritar guztiak berdinak bailiran jokatzen dute; planteatzen diren dinamikak herritar guztientzat eginak daude, baina behin martxan jarrita konturatzen gara kide guztiak ez daukatela guztia jarraitzeko gaitasunik. Ez da berdina urritasun fisikoak dituzten pertsonekin lan egin edo ez, aniztasun kognitiboa dutenekin ere berdina gertatzen da, baita klase sozial ezberdinetako jendearekin edo adin desberdinetako pertsonekin ere. Beraz, ezin dira guztiak berdin tratatu, eta horretarako ahalegin berezia egin behar da, guztiek dinamika berdin jarrai dezaten.

- Ez da ikasi behar jasotako informazio osoa goitik behera.

Metodologiaren lehen saioetan informazio pila bat azaltzen da, eta hori guztia barneratzea ezinezkoa da herritar batentzat. Informazio gehiegi dago, eta askotan modu oso konplexuan egiten dira aurkezpenak. Arrazoi ezberdinengatik (nekea, atentzioa mantentzeko zailtasunak, azalpenen tipologia, norberaren buruhausteak...) azalpen horietatik guztietatik zati batzuekin bakarrik geratzen da herritarra eta, gehienetan, nahikoa izaten da gero egin behar den lana egiteko. Une informaletan gainerako kideekin izandako elkarriketek ere asko laguntzen dute ikasketa prozesua osatzen.

- Ez da beti diskurtso atsegina eduki behar.

Metodologia deliberatibo honen ezaugarri nagusienetakoa da kontsentsua, nahiz eta onartuta dagoen herritarren artean ikuspuntu eta eztabaida ezberdinak egon daitezkeela. Horrelako prozesuetan parte hartzen duten herritarrak ez dira, normalean, ohituta egoten eztabaidatzera, eta gainerako kideak berriki ezagututakoak izaten direnez, oso jende gutxik nahi izaten du beste kideekin gai baten inguruan eztabaidatzen hasi. Beraz, askotan, norbere arrazoia mahai gainean jarri baino, nahiago izaten da gainerakoekin ados zaudela adierazi eta laneko martxarekin jarraitu. Horregatik, askotan, herritarrek dituzten ikuspuntu ezberdinak mahai gaineratu baino, kontsentsu faltsu bat irudikatzen da.

- Ez da utzi behar agendaren kontrola herritarren esku

Helburuetako bat izaten da herritarrak ahalduntzea, eta horretarako uzten zaie gomendioak euren kasa idazten. Dinamika honek bi ondorio negatibo ekarri ohi izan ditu: batetik, dinamizaziorik gabe azalarazten dira gizartean dauden botere harreman eta antzeko kontuak, dinamizazioak hori ekiditeko baliabide asko mahai gaineratzen baititu; bestetik, gomendioak idazteko konplexutasuna azaleratzen da, herritar oso gutxi dira gai paper zuri batean laburbiltzeko ordura arteko saioetan atera diren ideia guztiak. Beraz, herritarrak ahalduntzea ondo dagoen arren, ezinbestekoa da erraztaileen lanarekin jarraitzea, bestela ezinezkoa izango baita emaitza txukun bat lortzea.

- Ez dira prozesu hauek apolitikoak izango bailiran aurkeztu behar.

Horrelako prozesuetan korapiloak askatzeko politikariek duten gaitasun falta aipatzen da askotan, eta interes propiorik gabe jardungo duen herritarra horretarako gai izango dela sinistarazten da. Horregatik, parte hartzaile askok larregiko espektatibak sortzen dituzte, baina saioak aurrea doazen heinean konturatzen dira ez dela, benetan, hain erraza politika publikoen kudeaketa, eta horrek porrot sentazioa ekartzen du gero. Herritarrei garbi adierazi behar zaie euren ikuspuntua kudeaketa horietan txertatzeak zer nolako indarguneak dituen, baina garbi adierazi behar da konplexua ere badela, eta ezin dela nahi den guztia lortu; aurrekontuen mugek, burokraziaren epeek eta pausuek, kompetentziek, legeek eta abarrek asko zailtzen dute horrelako politikak aurrera ateratzea.

6.2.3. Gipuzkoako Herritarren Batzarra, behaketa bertatik bertara egiteko abagunea.

Aurretik aipatu izan dudana bezala, sekulako abagunea izan da Masterreko ikasle bezala horrelako prozesu batean behaketa lanak egiten egotea. Gure funtzioa deliberazio saioetan egotea izan da, eta han ikusi eta entzundakoa jasotzea; ondoren, elkarriketak egin dizkiegu herritarrei eta antolaketa lanetan ibili diren pertsona ezberdinei, eta horiekin guztiarekin ebaluazio txosten bat osatu dugu antolatzaileei aurkezteko, hurrengo prozesuetarako gakoak izan daitezkeen proposamenak aurkeztuz.

Behatzeko modua berezia izan da: deliberazio saioetan sortu diren 8 herritarren arteko lantaldeetan egon gara geu ere; 8 herritar, erraztailea eta gu, behatzaileak. Hasieratik aurkeztu gara, eta nola edo hala azaldu diegu herritarrei eta erraztaileei zein zen gure lana; gertatzen ari zena jaso dugu gure koadernoetan, baina inongo interferentziarik sortu gabe, ezertan parte hartu gabe.

Aldiz, bertan, hainbeste ordu egoteak, sortu du behatzaileen eta herritarren arteko konplizitate moduko bat, sarri ikusi gaituzte euren kide modura, eta horrek eman digu erraztasuna atsedean momentuetan, bazkarietan eta abar eurekin lasai hitz egin ahal izateko, baita eurek prozesuaren inguruan dituzten pentsamenduak eta sentazioak gurekin elkarbanatzeko ere. Horren adibide da prozesuaren amaieran 12 herritarrei eskatu geniola beste egun batean elkarrizketa sakon bat izatea gurekin eta denek eman zigutela baiezkoa, nahiz eta agendak kontuak direla eta, horietako hiru kiderekin ezin izan dugun egon.

J.Boswell ikertzaile ingelesak atera dituen ondorioak atera ditugu geuk ere deliberazio saioetan; lansaiotan bertan egoteak askotan eraman gaitu herritarren paperean jartzera, eta kontziente izatera ea geu ere gai izango ote ginen informazio pila hura osoki barneratzeko, edo gomendioen paper hutsaren aurrean ideia zaparrada hura laburbiltzeko; lan zaila, dudarik gabe.

Saio deliberatiboetan jaso duguna, OCDE-k ebaluaziorako proposatzen duen markoaz haratago joan da; horregatik ekarri ditugu ebaluazio txostenera lidergoa, kapital sinbolikoak, generoa, hizkuntza eta antzeko kontzeptuak.

Aldiz, ebaluaziorako hiru etapei begiratzen badiegu, gure behaketa 2. Etapan bakarrik kokatu da, saio deliberatiboetan soilik. Ez gara egon ez prozesuaren diseinuan, eta oso aukera gutxi daukagu inpaktuari jarraipena egiteko, ez baitaukagu harremanik gomendioen kudeaketan ari diren arduradunekin. Beraz, egin dugun lan hau aurrerantzean interesgarria izan daitekeela uste badugu ere, garbi daukagu hanka motz gelditu dela, ez baitugu prozesu osoa ezagutu, eta ezagutu ezean, ezinezkoa zaigu aipatu ditugu lehen eta hirugarren etapak ebaluatzea, eta horretarako proposamenak mahai gainean jartzea. Beraz, nola egin ebaluazioa prozesu osoarena izateko, eta ez, soilik, deliberazio saioena?

Ebaluazio ofiziala egiterako orduan ere izan ditugu zalantzak. Guk egindako ebaluazioa Parte Hartuz EHUko ikerketa sailak egindakoa izan da, erakunde independente eta neutro batena, baina OCDEri aurkeztu zaiona, prozesuaren antolatzaileek egindakoa izan da, gurea gehigarri bezala txertatuta. Behin saioak amaituta egin zen balorazio saioan elkartu ginen Tolosako eta Gipuzkoako Herritarren Batzarretan parte hartu genuen eragile guztiak, eta saio hura prozesuaren antolaketa ibili den erakunde batek gidatu zuen. Saioaren antolatzailea izanik, eta aurreragoko prozesuetan ere horrela izango dela aurreikusita, ba al du zentzurik balorazioaren jabea eurak izateak? Ez al luke guzti horren ardura Parte Hartuz-en esku izan behar?

Horrez gain, eragile guztiak bildu ginen saio horretan, kide batek baino gehiagok adierazi zuen ebaluaziorari buruz ideia oso gutxi zutela, eta prozesuan zehar ez dutela jakin izan, benetan, zer izan den

behatzaileok egin duguna. Beraz, posible al da horrelako prozesu batean, eragile guztiak ebaluazioaren parte izatea? Herritarrek ere ba al dute zeresanik kontu honetan?

6.2.4. Metaebaluazioa, ebaluatzeko beste proposamen bat.

Lan honekin amaitzeko, metodologiaren hibridazioarekin egin den moduan, behatzaileok bizi izan dugun esperientziatik eta irakurri ditugun beste batzuetatik abiatuta, proposamen bat izango da azken lerroetan azalduko dena; proposamen xume bat, hurrengo prozesuetarako baliagarri izan daitekeena, eta momentu horretan ebaluatu beharko dena. Kasu honetan ere, asmoa ez da egin dena kritikatzeko, baizik eta hurrengorako hobekuntza batzuk mahai gaineratzea.

Metaebaluazioa deitu diogu ebaluazioa egiteko moduz ari garelako, ebaluazioa ebaluatzen ari garelako, hain zuzen ere. Parte hartzaileagoa izango dena, eta prozesuan inplikaturik daudenak subjektu pasibo izatetik subjektu aktibo izatera pasako direna. Proposamen honek honako lau ezaugarriak izango ditu:

- Berrikuntza demokratiko guztien ebaluazioa izango da.

Aurreko atalean proposatu da metodologia honek marko deliberatiboa gainditu eta beste berrikuntzak ere barnebidu beharko lituzkeela; horregatik, ebaluazioa egiterakoan prozesu iraunkorraren zati guztiak ebaluatu behar dira, eta ez soilik deliberazioaren ikuspegitik, baizik eta berrikuntza demokratiko horiek dituzten ezaugarrien ikuspegitik. Justizia eta berdintasuna eta horrek azpian dituen elementu ezberdinak ebaluatu beharko lirake; erabakitzeko modua eta horrek duen bermea; erakunde politikoen eta administrazioarekin izandako elkarlana; gaiak gizartean sortzen duen eztabaida eta ikuspuntuen ordezkari diren gizarte eragileen lana; eta, noski, herritarrek gaiaren inguruan egiten duten arrazoiketa eta gomendioetarako adostasuna.

- Prozesu guztiaren gidaritza erakunde neutro eta independente batek izan behar du.

OCDE-k plazaratzen dituen printzipioen barruan kokatzen dugu hau. Ebaluazioaren gidaritza duenak ezin du izan antolatzaileen edo eragile politikoen menpe egon daitekeen eragile bat. Askotan interes propioengatik ebaluazio positiboegiak egiten dira horrelakoetan; aurrera begirako proiektuetan parte hartzeko aukerak izaten direlako, eragile politikoen harremanak izaten direlako, finantziario iturria erakunde publikoak direlako eta abar. Beraz, egiten den ebaluazio ofizialaren sinadura behar du OCDE-ren aurrean aurkeztuko den txostenak, eta horretarako erakunde egokia litzateke, adibidez, unibertsitate publikoa; kasu honetan, erakunde ebaluatzailearen finantziarioa ez legoke antolatzaileen menpe,

gizartean eta erakundeetan behar besteko legitimitatea luke, eta neutroa litzateke edozein eragileren interesen aurrean.

- Ebaluazioak prozesuaren etapa guztiak behatuko ditu

OCDE-k ebaluaziorako aipatzen dituen hiru etapen behaketa egingo da. Hau da, prozesu bakoitzaren diseinuan parte hartuko du, prozesu hori bera ebaluatzeko, eta emaitzen inpaktuen ebaluazioa bera ere diseinatzeko. Gehienetan egiten den moduan, bigarren etapa deliberatiboan parte hartze zuzena izango du; hirugarrenean ere bertan egongo da, kudeaketa zuzenean behatuz, eta behar besteko informazioa edukiz, bukaeran aurkeztuko den txostena osoagoa izateko.

- Ebaluazioaren diseinua eta osaketa parte hartzailea izango da.

Gero eta ohikoagoa da horrelako prozesu baten ebaluazioa parte hartzailea izatea, hau da, txostena ez dute soilik behatzaileek betetzen eurak ikusi dutenarekin, baizik eta parte hartu duten eragile eta agente guztiek esandakoak ere sartu izan ohi dira txostenetan, ebidentziak azpimarratzeko asmoz.

Zati honetan, ordea, ebaluazioaren diseinuaz hitz egin nahi da; hau da, parte hartuko duten eragile guztiekin osatuko litzateke behaketarako egingo den planteamendua. Prozesuaren zati bakoitzean zer eta nola behatuko den, berrikuntza demokratikoez dituzten ezaugarriak ebaluatzeko zer metodologia erabiliko den, zati bakoitzean zein agentek hartuko duen behatzeko eta idazteko ardura, eta abar zehaztuko litzateke. Guztien artean, lan hauek banatuz gero, ebaluazioak berak garrantzia handiagoa hartuko luke, eta hobetzekoak identifikatzeko betaurreko ezberdinak erabiliko lirateke. Noski, prozesu honen gidaritzak, baliabideen eskaintza, eta jarraipena aurretik aipatu dugun erakunde neutro eta independente (Unibertsitate publikoa) horren ardura litzateke.

Prozesuaren diseinuan oraindik parte hartzen ez badute ere, etapa deliberatiboan eta inpaktuari buruzko etapen herritarrek ere parte hartu beharko lukete. Komeni da herritarrei aurkeztea zer ebaluatuko den, eta eurek ere ekarpenak egitea; horrela, prozesuan zehar, eurak ere adi egongo dira hobetzekoak identifikatzeko orduan, beste betaurreko batzuk izango dituzte jantzita, J.Boswell ikertzaileak egiten duen bezala.

7. BIBLIOGRAFIA, WEB ORRIAK eta JARDUNALDIAK

BIBLIOGRAFIA

- Elstub, S. eta Escobar, O., (2019) Manual de Innovación democrática y Gobernanza
- Juaristi, P., (2003). Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak.
- Boswell, J., (2021) “Ver como un ciudadano: cómo ser participante en una asamblea de ciudadanos camió todo lo que creía saber sobre los minipúblicos deliberativos”. *Journal of Deliberative Democracy* 17.
- OCDE (2021). *Evaluation Guidelines for Representative Deliberative processes*, OCDE publishing, Paris.
- Ganuza, E. eta Mendiharat, A., (2020). La democracia es posible. Sorteo cívico y deliberación para rescatar el poder de la ciudadanía.
- Carrick, J., KNOCA (2022). Enfoques para la evaluación ed los conjuntos climaticos.
- Habermas, J. "La esfera de lo público". *Revista de Ciencias Sociales* 1986
- Maija Jäske eta Maija Setälä, (2019). Referendos e iniciativas ciudadanas. Elstub, S. eta Escobar, O., (2019) Manual de Innovación democrática y Gobernanza. *90-104 orriak*.
- Ernesto Ganuza eta Gianpaolo Baiocchi, (2019). El camino largo de los presupuestos participativos. Elstub, S. eta Escobar, O., (2019) Manual de Innovación democrática y Gobernanza. *77-89 orriak*.
- Sonia Bussu (2019), Gobernanza colaborativa: estnre espacios invitados e inventados. Elstub, S. eta Escobar, O., (2019) Manual de Innovación democrática y Gobernanza. *60-76. orriak*.
- Christina Demski eta Stuart Capstick (2022). Centro para el cambio climático y las transformaciones sociales.
- Chantal Mouffe, (2000). La paradoja democrática.
- Asier Blas eta Pedro Ibarra (2006). La participacion: estado de la cuestión.
- Clodagh Harris, (2019). Minipúblicos: opciones de diseño y legitimidad. Elstub, S. eta Escobar, O., (2019) Manual de Innovación democrática y Gobernanza. *45-59 orriak*.
- Robert Dahl (1989). Democracia y sus criticos.
- Edwards, Peter B.; Hindmarsh, Richard; Mercer, Holly; Bond, Meghan; y Rowland, Angela (2008) "A Three-Stage Evaluation of a Deliberative Event on Climate Change and Transforming Energy," *Journal of Public Deliberation*: Vol. 4 : Iss. 1 , Artículo 6.
- Robert Goodin eta John Dryzek (2006). Inpactos deliberativos: la adopción macropolítica de los minipúblicos.
- Martínez-Palacios, Jone. 2017. “Contra-públicos feministas e innovaciones democráticas. Estrategias para una profundización democrática inclusiva”.

- Graham Smith (2019). Reflexiones sobre la teoría y la práctica de las innovaciones democráticas. Elstub, S. eta Escobar, O., (2019) Manual de Innovación democrática y Gobernanza. 572-582. *Orriak*
- Selen A. Ercan, Hans Asenbaum, Nicole curato eta Ricardo F. Mendonça (2022) Metodos de investigación e la democracia deliberativa.
- Takeuchi Ayano (2021). Estudio de los metodos de evaluación de los minipúblicos.
- Bello Hut, (2016). El giro sistémico en la democracia delibertaiva: reflexiones en clave republicana contra una perspectiva holista.
- Nicole Curato, Juan S. Dryzek, Selen A. Ercan, Carolyn M. Hendriks, Simón Niemeyer (2017). Doce hallazgos clave en la investigación sobre democracia deliberativa.

WEB ORRIAK

- <https://2019.comunicacionypensamiento.org/ponencia/esfera-publica-y-democracia-deliberativa-aportaciones-desde-el-feminismo/>
- Goldsmith W. Eta Vainer C. (2007). Presupuestos participativos y políticas de poderes en Porto Alegre.
<https://www.lincolinst.edu/es/publications/articles/presupuesto-participativo-politicas-poderes-en-porto-alegre>
- OI DP (2019). El Modelo de Ostbelgien: un Cpnsejo Ciudadao a largo plazo combinado con Asambleas Ciudaanas a corto plazo. <https://oidp.net/es/practice.php?id=1237>
- ArantzazuLab (2023). Demokraziari buruzko ulermenak gurean. <https://arantzazulab.eus/demokrazia-beste-edozein-erregimen-politiko-baino-hobea-dela-dio-10-herritarretik-9k/>

JARDUNALDIAK

- Partaidetza, Ikerketa Ekintza eta Garapen komunitarioa. Nazioarteko jardunaldiak. Parte Hartuz ikerketa saila. 2023ko apirilaren 26tik 28ra.
- Asambleas ciudadanas, una nueva ola de compromiso ciudadano en Europa. UIK. 2023ko maiatzaren 19an. Online

8. ERANSKINAK

8.1. ELKARRIZKETATUEN TAULA

Elkarrizketa zenbakia	Elkarrizketatu zenbakia	Herritarren Batzarrean izan duen rola	Generoa	Adina	Beste ezaugarriak
1	1.1.	Herritarra	Gizona	45-60	Euskalduna
2	1.2.	Herritarra	Gizona	45-60	Euskalduna
3	1.3.	Herritarra	Gizona	30-45	Etorri berria
4	1.4.	Herritarra	Emakumea	45-60	Euskalduna
5	1.5.	Herritarra	Emakumea	60-80	Euskalduna jubilatua
6	1.6.	Herritarra	Gizona	45-60	Erdalduna
7	1.7.	Herritarra	Gizona	60-80	Euskalduna, jubilatua
8	1.8.	Herritarra	Emakumea	45-60	Erdalduna
9	1.9.	Herritarra	Emakumea	16-30	Euskalduna, gaztea
10	2.1.	Erraztatzailea	Emakumea	30-45	Erraztatzailea
11	2.2.	Erraztatzailea	Emakumea	45-60	Erraztatzailea
12	2.3.	Antolatzailea	Emakumea	30-45	ArantzazuLab
13	2.4.	Antolatzailea	Gizona	45-60	TMeLab
14	2.5.	Diseinatzailea	Emakumea	45-60	Deliberativa
15	2.6.	Erakunde jabearen teknikaria	Emakumea	30-45	Gipuzkoako Foru Aldundiko partaidetza teknikaria